

|  |           |
|--|-----------|
| <b>1. Gasteizko Udalaren lankidetzaren 2007. urtean: ikuspegi orokorra .....</b>   | <b>3</b>  |
| <b>1.1. Zeregina eta helburu estrategikoak .....</b>   | <b>3</b>  |
| <b>1.2. Programa: datu orokorrak.....</b>  | <b>3</b>  |
| 1.2.1. Garapenean laguntzeko aurrekontu partida .....  | 3         |
| 1.2.2. Jarduera-arloak.....  | 4         |
| 1.2.3. Diru-laguntzaren kudeaketa.....   | 5         |
| 1.2.4. Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak .....   | 7         |
| <b>2. Lankidetzaren programa .....</b>   | <b>9</b>  |
| <b>2.1. Lankidetzaren arloa.....</b>   | <b>9</b>  |
| 2.1.1. Garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuetarako 2003ko deialdiari dagozkion ekarpenak.....   | 9         |
| 2.1.2. “Garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuak identifikatu eta formulatzeko” diru-laguntzak emateko deialdia, 2006. urtea.....                             | 11        |
| 2.1.3. Garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuak partez finantzatzeko diru-laguntzak. 2007ko deialdia. ....  | 13        |
| 2.1.4. Lankidetzarako urteko deialdia.....   | 14        |
| 2.1.5. Saharako herriekiko lankidetzaren eta elkartasun hitzarmena.....  | 17        |
| 2.1.6. Euskal Fondoarekiko hitzarmena .....  | 18        |
| 2.1.7. Agadirrekiko (Maroko) hitzarmena .....  | 19        |
| <b>2.2. Gizaldeko ekintza, giza eskubideak babestea eta larrialdiak .....</b>  | <b>20</b> |
| 2.2.1. Giza eskubideak babesteko deialdia .....  | 20        |
| 2.2.2. Larrialdietarako Arabako Funtza .....   | 21        |
| <b>2.3. Gasteizko Udalaren lankidetzaren datu nagusiak .....</b>   | <b>23</b> |
| 2.3.1. Lankidetzaren eta gizaldeko ekintza.....  | 23        |
| 2.3.2. Herrialdeen araberrako banaketa .....   | 23        |
| 2.3.3. Geografi eremuen araberrako banaketa.....   | 24        |
| <b>3. Sentsibilizazio programa .....</b>   | <b>26</b> |
| <b>3.1. Sentsibilizazio ekintzetarako diru-laguntzen azpiprogramak. ....</b>   | <b>26</b> |
| 3.1.1. Diru-laguntza deialdia: “Garapenerako Hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak finantzatzea” .....  | 26        |
| 3.1.2. Diru-laguntza deialdia: Gasteizen burutzeko nazioarteko elkartasunaren alorreko sentsibilizazio jarduerak finantzatzeko laguntzea. ....                           | 27        |
| 3.1.3. Diru-laguntza deialdia: “Garapenerako hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak identifikatu eta formulatzea”.....                                       | 28        |
| <b>3.2. Lankidetzaren hitzarmenak .....</b>  | <b>29</b> |
| 3.2.1. SETEM-HEGO HAIZEArenkiko hitzarmena, Gasteizko Udalaren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko .....   | 29        |
| 3.2.2. Mugarik Gabe GGKEarenkiko lankidetzaren hitzarmena, XIII. Zinema eta Lankidetzaren Erakustaldirako.....   | 29        |
| 3.2.3. EAEko GGKEaren Koordinakundearen (Arabako ordezkariak), Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena .....                                   | 30        |
| 3.2.4. Bakeaz koadernoaren bilduman azterlanak argitaratzeko hitzarmenak.....  | 30        |
| 3.2.5. AFANIS Saharako haurrak hartzen dituzten familien elkartearen, Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena: “Oporrak bakean” programa ..... | 31        |
| 3.2.6. SETEM Hego Haizea eta Arabako Foru Aldundiarenkiko hitzarmena, garapenean laguntzeko boluntarioak prestatzeko programa garatzeko. 2007-08 ikasturtea .....        | 32        |
| 3.2.7. Sentsibilizazio deialdi eta hitzarmenen baitako diru-laguntzak .....  | 32        |
| <b>3.3. Informazioa, zabalkundea eta prestakuntza.....</b>   | <b>33</b> |
| 3.3.1. <i>Hacia una manualística universal de habitabilidad básica</i> liburuaren aurkezpena<br>33   |           |
| 3.3.2. <i>Lankidetzaren irudietan</i> argazki lehiaketa .....  | 34        |
| 3.3.3. Saharari buruzko mintegia.....  | 34        |

|   |           |
|---|-----------|
| 3.3.4. <i>Generoa eta aniztasuna</i> mintegia.....                          | 34        |
| 3.3.5. Hainbat urtetarako proiektuei buruzko ikusentzunezko bat egitea..... | 35        |
| 3.3.6. <i>Ez da emakumerik emagaldurako jaio denik</i> erakusketa .....     | 35        |
| 3.3.7. "EAEko GGKEetako lan egoera" azterlana .....                         | 35        |
| 3.3.8. Udal Kazetan artikulua argitaratzea.....                             | 36        |
| 3.3.9. Lankidetzari buruzko web-orria .....                                 | 37        |
| 3.3.10. Materialen zabalkundea .....  | 37        |
| 3.3.11. Jostailuak biltzeko kanpaina.....                                   | 38        |
| 3.3.12. Najapara (El Salvador) liburuak bidaltzea .....                     | 38        |
| 3.3.13. Informazio eta zabalkunde atalaren aurrekontua .....                | 38        |
| <b>4. Jarraipena eta ebaluazioa .....</b>                                   | <b>39</b> |
| 4.1. Proiektuen jarraipenerako bisitaldia.....                              | 39        |
| 4.2. Proiektuei buruzko txostenen jarraipena .....                          | 40        |
| 4.3. Saharako programaren (2002-2006) ebaluazioaren emaitzak .....          | 40        |
| 4.4. Paitarekiko (Peru) hitzarmenaren jarraipena kontratatzea .....         | 40        |
| 4.5. Zenbait urtetarako bi proiektu ebaluatzeke kontratazioa .....          | 41        |
| 4.6. Jarraipena eta ebaluazioa egiteko baliatutako aurrekontua .....        | 41        |
| <b>Truke eta bisitaldiak .....</b>  | <b>42</b> |
| 4.7. Bisitaldiak .....  | 42        |
| <b>5. Lankidetzarako Kontseilua .....</b>                                   | <b>46</b> |

# 1. Gasteizko Udalaren lankidetzaren 2007. urtean: ikuspegi orokorra

## 1.1. Zeregina eta helburu estrategikoak

Gasteizko Udalak garapenerako ematen duen laguntza kudeatzea da Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina. Izan ere, aspalditxo erabaki zuen udalak bere aurrekontuen gutxienez % 0,7 herrialderik txiroenei garapenean laguntzeko eta gasteiztarren artean haienganako elkartasuna sustatzeko baliatzea.

Aurrekontu partida horren kudeaketaz harago, helburu hauek ditu Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak:

- Gasteizko gizatalde eta GGKEek esku hartzen duteneko elkartasun eta garapen jardueretarako laguntza ematea.
- Garatze bidean dauden herrialdeetako garapen-esperientzietan laguntzea, giza garapen iraunkorraren ikuspegitik, hartara lekuan lekuko erakunde demokratikoak eta herritarren parte-hartzea sendotzeko.
- Gasteizko GGKEen eta garatze bidean dauden herrialdeetako arteko lankidetzaren eta elkartasun loturak sendotzeko aukera eskaintzea.
- Gasteizko Udalak esku hartzen dueneko lankidetzaren proiektu eta programen kalitatea hobetzea.

## 1.2. Programa: datu orokorrak

### 1.2.1. Garapenean laguntzeko aurrekontu partida

Gasteizko Udalak hasiera batean garapenean laguntzera bideratutako aurrekontua, 2007. urtean, 2.464.432,00 eurokoa izan zen; hain zuzen ere, udalak onetsitako aurrekontu osoaren % 0,79<sup>1</sup>.

Kontuan izanik gerora partida-aldakuntza bat egin zela, eta Arabako Foru Aldundiak 26.000 euroko ekarpena egin zuela<sup>2</sup>, honako hauek dira aurrekontua gauzatzeari buruzko benetako datuak:

| KAPITULUAK                         | 2007KO AURREKONT. (€) | GAUZATUA     | %    |
|------------------------------------|-----------------------|--------------|------|
| II. KAPITULUA (KANPOKO ZERBITZUAK) | 105.000,00            | 101.110,73   | 96,3 |
| IV. KAPITULUA (DIRU-LAGUNTZAK)     | 2.385.432,00          | 2.379.132,00 | 99,7 |
| GUZTIRA                            | 2.490.432,00          | 2.480.242,73 | 99,6 |

<sup>1</sup> Udalak benetan gauzaturako ohiko diru-sarreraren gainean (diru-sarreraren I-V kapituluak) kalkulaturako ehunekoa.

<sup>2</sup> GGKEetako lan-baldintzei buruzko azterketak egiteko.

## 1.2.2. Jarduera-arloak.

Gasteizko Udalaren lankidetzak –onartzen diren deialdi eta hitzarmenen harira– proiektuak finantzatzera mugatzen dela pentsa baliteke ere, esan beharra dago Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren zeregina proiektuak bideratzen laguntzeaz harago ere iristen dela.

Alde batetik, bi esparru osagarri eta aldi berean berezitan esku hartzen du zerbitzuak:

- lankidetzak (zentzurik zabalenean, hots, garatze bidean dauden herrialdeetarako garapenerako laguntza, giza laguntza nahiz giza eskubideak babesteko jardueretarako laguntza),
- sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza (zentzurik zabalenean, hots, herrialde horietako herriekiko elkartasuna sustatzen duten esku hartzeak).


Bestetik, berriz, urtean nahiz aurreko urteetan onartutako proiektuen jarraipenarekin du zerikusia Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak burutzen duen lanaren parte handi batek, baita, neurri txikiagoan bada ere, horien ebaluazioarekin ere.

Planifikazioari begira, hiru arlotan dago banatuta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren lana:

- **Lankidetzak:** garatzen ari diren herrialdeetako proiektuetarako –lankidetzak proiektuetarako nahiz giza laguntzaren alorrekoetarako– urtero ematen diren diru-laguntzak onetsi eta finantzatzea, eta, inoiz, udal zerbitzuen laguntza teknikoa koordinatzea.
- **Sentsibilizazioa:** sentsibilizazioaren eta garapen-hezkuntzaren arloko jardueretara bideratutako urteko diru-laguntzak onestea eta finantzatzea, eta unean uneko bestelako informazio eta zabalkunde jarduerak egitea, baita tokian tokiko erakundeekiko edo lankidetzak programetako bazkideekiko elkartrukeak ere.
- **Identifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa:** aurkeztutako nahiz onartutako proiektuen jarraipen, kontrol eta ebaluaziorako hainbat lan (bai lankidetzaren arloan, bai sentsibilizazioarenean).

Material-bidalketei dagozkien bi gastu lankidetzatzen jo ditugu kontuan izanik, 2007ko aurrekontuan arlo bakoitzak zenbateko pisua izan duen erakusten du ondoko grafikoak:

| LANKIDETZARAKO AURREKONTUA (2007), GUZTIRA, ARLOZ ARLO |              |
|--|--------------|
| LANKIDETZA, GIZALDEKO EKINTZA ETA LARRIALDIAK          | 2.026.628,06 |
| SENTSIBILIZAZIOA, G.H., ELKARTRUKEAK                   | 344.968,71   |
| IDENTIFIKAZIOA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA              | 108.645,96   |
| GUZTIRA  | 2.480.242,73 |



2007ko gertakarien artetik, hauek nabarmendu daitezke:

- Hitzarmen bat sinatu zen Tierra de Hombres (Euskadi eta Maroko) erakundearekin eta ama ezkongabeekin eta bazterketa egoeran dauden emakume eta haurrekin diharduten Agadirreko bi elkarterekin. Agadirren gizarte zerbitzu horiek hobetzeko elkartrukeak bideratzeko eta gure hirian bizi diren magrebiarrei zuzendutako udal esku-hartzea hobetzeko aukera emango du horrek.
- Zenbait urtetarako lankidetzta proiektuetarako hirugarren deialdia onetsi zen. Lau urtetarako konpromisozko kredituak izango dira horretarako.
- Handitu egin da giza eskubideak babesteko deialdira bideratutako diru kopurua, eta erantzun oso ona jaso du deialdi horrek arlo horretan diharduten Gasteizko GGKEengandik.
- Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Zuzendaritzarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta Euskadiko GGKEen Koordinakundearekin batera, GGKEetako lan baldintzei buruzko diagnosi-azterlana egiteko prozesua bultzatu zen, eta jardunaldi batzuk egin ziren horren haritik. Gehienbat emakumezkoak dira GGKEetan lanean dihardutenak, kualifikazio handia dute, eta lan-merkatuan kualifikazio maila horiei dagozkienak baino soldata dezente apalagoak jasotzen dituzte.

### 1.2.3. Diru-laguntzaren kudeaketa

Lankidetzarako aurrekontua gehienbat diru-laguntzetara bideratzen denez, zilegi da galdetzea zein diren diru-laguntza mota desberdinak edo berariazko programak, zein arlori dagozkien, zeinek kudeatzen dituen eta zein prozeduraren bitartez esleitzen diren.


2007an kudeatutako diru-laguntza programak eta horietara bideratutako diru-kopuruak ageri dira ondoko laukian:

| PROGRAMAK  | €          |
|--|------------|
| LANKIDETZA   |            |
| Zenbait urtetarako lankidetzta proiektuak (2003ko deialdia)                  | 878.500,00 |
| Lankidetzarako urteko deialdia   | 510.764,49 |
| Saharako herriarekiko elkartasun programa                                    | 250.000,00 |
| Euskal Fondoarekin bideratutako programa                                     | 225.561,28 |
| Garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuak identifikatzeko deialdia | 60.000,00  |

| PROGRAMAK   | €                   |
|---|---------------------|
| Zenbait urtetarako lankidetzako proiektuak (2007ko deialdia)                                  | 30.000,00           |
| Agadirrekiko hitzarmena   | 15.800,00           |
| <b>GIZALDEKO EKINTZA</b>  |                     |
| Giza eskubideak babesteko deialdia  | 146.647,96          |
| Larrialdietarako Arabako Funtza   | 12.153,26           |
| <b>SENTSIBILIZAZIOA</b>   |                     |
| Garapen hezkuntzako zenbait urtetarako proiektuak (2005eko deialdia)                          | 90.400,00           |
| GGKEen koordinakundearekiko hitzarmena  | 32.000,00           |
| Urteko sentsibilizazio deialdia   | 28.255,00           |
| SETEMekiko hitzarmena, prestakuntza programarako  | 26.000,00           |
| “Oporrak bakean” programa   | 22.500,00           |
| Mugarik Gabe erakundearekiko hitzarmena, zinema eta lankidetzari buruzko XIII. erakusketarako | 20.100,00           |
| Bakeaz koadernoak   | 15.450,00           |
| <b>DIRU-LAGUNTZAK, GUZTIRA</b>  | <b>2.379.132,00</b> |

Kontuan izanik zenbait programak arlo desberdinetako ekintzak nahasten dituztela (esate baterako, Sahararen kasuan, lankidetzako eta gizaldekoko laguntza), zehaztutako hiru arlo handien arteko banaketa (lankidetzako, gizaldekoko ekintza eta larrialdiak, sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza) hauxe litzateke:

| 2007KO DIRU-LAGUNTZAK, ARLOZ ARLO           | €                   |
|---|---------------------|
| Lankidetzako                                | 1.841.069,02        |
| Gizaldekoko ekintza eta larrialdiak         | 242.001,22          |
| Sentsibilizazioa eta garapenerako hezkuntza | 296.061,76          |
| <b>GUZTIRA</b>                              | <b>2.379.132,00</b> |




2006. urtean ez bezala, aurreko urteetan ohiko zen hiru arloen arteko portzentaje-banaketa (80-10-10) egokitu zen iaz berriro.

2007. urtean ez zenez zuzeneko lankidetzarako hitzarmenik izenpetu, honela kudeatu ziren diru-laguntzak:


- % 90,5 GGKEek
- % 9,5 Euskal Fondoak.

|               | €            |
|---------------|--------------|
| Euskal Fundoa | 225.561,28   |
| GGKE          | 2.153.570,72 |
| GUZTIRA       | 2.379.132,00 |



2007ko lankidetzarako diru-laguntzak: zeinek kudeatzen dituzten

Bestalde, lankidetzarako diru-laguntzen % 74 deialdien bitartez kudeatzen da, % 25,5 hitzarmenen bitartez eta % 0,5 larrialdietarako funtsaren bitartez. Gogora dezagun Gasteizko Udalak 2001ean onetsitako “lankidetzeta-hitzarmenak onartzeko oinarrietan” berariaz adierazten dela ezin dela diru-laguntzen herena baino gehiago bideratu hitzarmenetara.



2007ko lankidetzarako diru-laguntzak: nola ematen diren

#### 1.2.4. Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak

Oro har, ontzat jo daitezke lankidetzaren kudeaketa eta horren emaitzak. Nolanahi ere, udalak lankidetzari ekin zionetik 20 urte bete diren honetan, ezinbestekoa da balantzea eta gogoeta egitea, Lankidetzarako Kontseiluan erabaki bezala.

Hauek dira xede nagusiak:

- Sentsibilizazioaren eta lankidetzaren arteko koherentzia handiagoa lortzea, baita nolabaiteko informazio-eragina ere, gure ingurunean.
- Lankidetzak inmigrazioaren arazoekin izan dezakeen erlazioa sakonago aztertzea; bereziki, batzuen eta besteen intereseko suerta daitezkeen lankidetzak eta trukeak aintzat hartzea.
- Are gogotsuago garatzea lankidetzak, udal zerbitzuen parte-hartze teknikoarekin.
- Lankidetzan esku-hartzen duten agenteen multzoa zabalago bihurtzea.
- Lankidetzarako Euskal Legea onetsi ondoren, erakunde publikoen arteko koordinazioa sendotzea.

Hiru arlo horien arabera dago egituratuta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2007ko oroit-idazkia, bakoitzaren baitan azpi-programak eta jarduerak zehazten direlarik. Azken atalean, berriz, Garapenerako Kontseiluaren 2007ko jarduna laburbiltzen da.



## 2. Lankidetza-programa

Lankidetzaren arloko azpi-programetako bakoitzari, hau da, deialdi edo hitzarmen bereizi bakoitzari buruzko oinarrizko informazioa eskaintzen da ondoren; azken atalean, berriz, datu orokorrak ageri dira.

### 2.1. Lankidetza arloa

#### 2.1.1. Garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuetarako 2003ko deialdiari dagozkion ekarpenak

Gasteizko Udalaren lankidetza programa nagusia bihurtu da garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuetarako deialdia; hain zuzen ere, 875.500 €-ko kopurua bereganatu zuen iaz. Deialdi horren baitan –2003an egin zen deialdia, aldezturik “zenbait urtetarako proiektuak identifikatu eta taxutzeko deialdia” egin zelarik–, hiru edo lau urteko hamaika proiektu onetsi ziren. 2004an jarri ziren abian.

Deialdi horren baitan onetsitako proiektuak ageri dira ondorengo taulan, baita 2007. urteari dagozkion diru-laguntzak eta diru-laguntzen zenbateko osoa ere.

| Proiektua  | Kodea            | Herrialdea       | GGKE                         | Diru-laguntza  |                |
|--|------------------|------------------|------------------------------|----------------|----------------|
|  |                  |                  |                              | 2007           | Guztira        |
| <b><i>Carolinako nekazaritza eremuetako emakumeen, lurrik gabeko familien eta ekoizle txikien osasuna, elikadura eta parte-hartzea sustatzea.</i></b>  | <b>P-01- ARG</b> | <b>Argentina</b> | <b>ADSIS fundazioa</b>       | <b>0</b>       | <b>147.500</b> |
| Osasun sorospena, 200 familiarentzat, astean lau egunez, komunitateko osasun zentroan. Urteko ikastaroa, komunitateko osasun zentroaren sustatzaileei prestakuntza emateko. Osasunaren hainbat arlotako prestakuntza: jaiotze aurrekoa, haurrak, emakumeak, famili plangintza, sexu heziketa, medikuntza naturala, familiako indarkeria, zaharrak. Zentroa osasunaren arloko beste esperientzia pribatu nahiz publiko batzuekin uztartzea.   |                  |                  |                              |                |                |
| Sustapen eta prestakuntza programa bat bideratzea Baratzegintza Organikoaren eta Abeltzaintzaren arloan, <i>Instituto Nacional de Tecnología Agropecuaria</i> (INTA) erakundearekin koordinaturik. Emakume nekazarien sustapenerako programa bat bideratzea. Hezkuntza eta zabalkunde materialak egitea, inguru horretako familien bizitza kalitatea hobetze aldera.   |                  |                  |                              |                |                |
| <b><i>Germán Busch kantoiaresen garapen lokal iraunkorrerako lurralde antolakuntza integral, demokratiko eta partehartzailea.</i></b>  | <b>P-02- BOL</b> | <b>Bolivia</b>   | <b>Bakea eta Elkartasuna</b> | <b>100.500</b> | <b>353.000</b> |
| Kantoiko Lurralde Antolakuntzarako Plana taxutzea, hainbat alderdi bere baitan hartzen dituelarik: ekonomikoak, ingurumenari dagozkionak, legalak, sozialak, erakundeei dagozkiena... Garapenerako 7 proiektu aterako dira hortik. Hauxe dakar horrek berekin:<br>- 40 lider gaitzea (32 gizon eta 8 emakume), plangintza tresnak erabiltzeko gai izan daitezen.<br>- Hiru funtzionario gaitzea, sortuko den kantoiko Lurralde Antolakuntzarako Bulegoa kudeatzeko gai izan daitezen.<br>- Kantoiko emakumeen antolakuntza sendotzeko ikastaro eta lantegiak, emakumeek eskualdeko erabakitzeko organoetan presentzia aktiboagoa izan dezaten. |                  |                  |                              |                |                |
| <b><i>Emakumeen protagonismo politikoa sustatzea, beren komunitateetan (Medellin).</i></b>   | <b>P-03- COL</b> | <b>Kolonia</b>   | <b>SETEM Hego Haizea</b>     | <b>117.500</b> | <b>439.000</b> |
| Medellin inguruko lau udalerritan garatzen ari den proiektua. Honako hauek hartzen ditu bere baitan:<br>- Generoaren eta berdintasun politiken arloko programak, udalerriri bakoitzeko gizarte antolakundeetako emakumeei zuzenduak.   |                  |                  |                              |                |                |

| Proiektua   | Kodea           | Herrialdea            | GGKE                             | Diru-laguntza  |                |
|---|-----------------|-----------------------|----------------------------------|----------------|----------------|
|   |                 |                       |                                  | 2007           | Guztira        |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Tokiko administrazioetako funtzionarioei zuzendutako ikastaro bat.</li> <li>- Udalerrri bakoitzeko emakume gazteei zuzendutako gaikako mintegiak eta jarduera ludikoak.</li> <li>- Emakume gazteen agendak administrazioekin hitzartzeko jarduerak.</li> <li>- Politika publikoak taxutzeko emakumeen eta funtzionarioen arteko lan-mahaiak eratu eta horietan laguntzea.</li> <li>- Emakumeen lanaldiak gobernu erakundeetan.</li> <li>- Emakumeen arazo eta beharrei buruz jarduteko foro eta katedrak.</li> </ul>   |                 |                       |                                  |                |                |
| <b>León de Piedra zentro eko-turistikoa</b>   | <b>P-04-ELS</b> | <b>El Salvador</b>    | <b>Mugen Gagnetik</b>            | <b>112.000</b> | <b>416.500</b> |
| Parke eko-turistiko bat eraikitzea San Vicente sumendiaren magalean, Tecoluca udalerrian. Bioaniztasuna eta baliabide hidrikoak zaintzeaz gain, ingurumenaren alorreko ikerketa eta hezkuntza sustatzeko aukera emango du parkeak, baita ingurumenean eragin gutxi duten aisialdi jarduerak garatu eta lanpostuak sortzekoa ere. <b>Udalerriko alkatetzak eta inguruko herriek parte hartuko duten erakunde misto batek kudeatuko du.</b>   |                 |                       |                                  |                |                |
| <b>Zazpi komunitateren garapen integrala, hezkuntza prozesuen eta genero harremanen aldakuntzaren bitartez</b>  | <b>P-05-ELS</b> | <b>El Salvador</b>    | <b>Solidaridad Internacional</b> | <b>114.000</b> | <b>424.500</b> |
| Tecapán eta Santiago de María (Usulután) udalerrietako herrietan garatzen ari da proiektua. Hauek hartzen ditu bere baitan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- herrien beharrei erantzuteko parte hartze eta eragin maila handiagoak lortzera zuzendutako antolakuntza-prozesuetan laguntzea.</li> <li>- hezkuntza proiektu integralak: gaitasun, jarrera eta balio berriak sustatzera zuzenduak, eta komunitatearen baliabideak baliatzeko orduan dauden genero-desberdintasunak ezagutzera.</li> <li>- genero-desberdintasunak ulertu eta desagerrarazteko prozesuak: emakumeek komunitateetako erabakiguneetan parte hartze handiagoa izatera eta familien baitako indarkeriaren inguruko sensibilizazioa areagotzera zuzenduak.</li> <li>- bi alkatetza horien politika sozialak, generoaren arlokoak eta ingurumenaren arlokoak abian jartzen direla bermatzeko estrategia, Gizarte Sustapenerako Unitateak sortuz.</li> </ul>   |                 |                       |                                  |                |                |
| <b>Sorospen integrala GIB/HIESa duten pertsonen, Izabalen</b>   | <b>P-06-GUA</b> | <b>Guatemala</b>      | <b>Mugarik Gabeko Medikak</b>    | <b>101.000</b> | <b>375.500</b> |
| GIB/HIESa duten pertsonen, Puerto Barrios eta Livingston osasun barrutietan, lehen sorospeneko zerbitzuetan nahiz ospitaleetan sorospen integrala eskaintzeko programa. Honako hauek hartzen ditu bere baitan: <ul style="list-style-type: none"> <li>- osasun publikoaren sisteman programa integratu bat abian jartzea.</li> <li>- osasun egitura publikoetan nonahi ere izan beharreko arreta berezia jartzen dela ziurtatzea.</li> <li>- GIB/HIESaren transmisio bertikala (haurdunak) murriztea.</li> <li>- GIB/HIESa duten pertsonen jarraipen klinikoa bermatzea, baita profilaxia eta gaixotasun oportunisten tratamendua ere.</li> <li>- ARV tratamendua jasotzeko aukera.</li> <li>- taldeak antolatzea komunitatean, prestakuntza jarduerak eta prebentzioaren inguruko informazioa eskaintzea eta GIB/HIESa duten pertsonen laidoztatzea murriztea.</li> <li>- gobernuko nahiz gobernuz kanpoko eragileak kontzientziaraztea, interesa eta borondate politikoa areagotzea.</li> </ul> |                 |                       |                                  |                |                |
| <b>Edateko ura eramatea Champerico herrira</b>  | <b>P-07-GUA</b> | <b>Guatemala</b>      | <b>PROCLADE</b>                  | <b>0</b>       | <b>319.500</b> |
| Ur sistema bat eraikitzea (ponpatze estazioa, desinfekzioa, banaketa sarea, biltegiak eta etxeetarainoko hodiak), 1.460 etxebizitzari zerbitzu hori eskaintzeko, ur enpresa misto bat abian jartzea, herritarren eta udalaren partehartzearekin.  |                 |                       |                                  |                |                |
| <b>Ura eta saneamendua, Atitlán lakuaren goi arroako 18 herritan</b>  | <b>P-08-GUA</b> | <b>Guatemala</b>      | <b>PTM-HMB</b>                   | <b>112.000</b> | <b>416.500</b> |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ura atera eta banatzeko zortzi sistema berri eraikitzea, eta beste bi hobetzea.</li> <li>- Hondakin solidoak eta likidoak tratatzeko sistema hobetzea 16 komunitatetan (komunak eta zabortegeak egitea barne), 565 familiarentzat.</li> <li>- Arroako lurrak hobetzea, 30 hektareatan zuhaitzak aldatuz.</li> <li>- Udal Plangintza Bulegoa kudeatzeko gaitasuna areagotzea.</li> <li>- Emakumearen Batzorde bat eratzea udalerrian, eta gizonezko nahiz emakumezkoen zuzendutako hainbat lantegi egitea.</li> </ul>   |                 |                       |                                  |                |                |
| <b>Kogoko barrutiaren toki garapenean laguntzea, osasunaren,</b>  | <b>P-09-GEC</b> | <b>Ekvatore Ginea</b> | <b>Asociación Africanista</b>    | <b>0</b>       | <b>206.000</b> |

| Proiektua   | Kodea           | Herrialdea       | GGKE                         | Diru-laguntza  |                |
|---|-----------------|------------------|------------------------------|----------------|----------------|
|   |                 |                  |                              | 2007           | Guztira        |
| <b>hezkuntzaren eta gizarte ehunaren sustapenaren bitartez.</b>   |                 |                  | <b>Manuel Iradier</b>        |                |                |
| Osasunaren kudeaketa eta sorospena hobetzea, Kogoko barrutian. Besteak beste:   |                 |                  |                              |                |                |
| - barrutiko talde mugikorra eratzea.  |                 |                  |                              |                |                |
| - 16 osasun-postu sendotzea.  |                 |                  |                              |                |                |
| - egoera epidemiologikoaren ezagutza hobetzea.  |                 |                  |                              |                |                |
| - Eragin handiena duten gaixotasunen prebentzioari buruzko informazioa (HIESa eta sexu-transmisiozko gaixotasunak).   |                 |                  |                              |                |                |
| Gizarte ehuna sendotzea, ekintza soziokulturalak garatuz. Honako hauek egingo dira:   |                 |                  |                              |                |                |
| - Lehendik dauden 2 zentro soziokultural eraberritu eta hornitzea.  |                 |                  |                              |                |                |
| - Oinarrizko antolakundeak sortzea, sentsibilizazioa bultzatzeko hainbat arlotan: osasuna, generoa, ingurumena, kultura autoktonoa berreskuratzea eta ekoizpen ekimenak.  |                 |                  |                              |                |                |
| <b>Larreynaga udalerrian gobernagarritasuna sendotzea, genero, belaunaldi eta ingurumen ikuspegiak baliatuz</b>   | <b>P-10-NIC</b> | <b>Nikaragua</b> | <b>Mugarik Gabe</b>          | <b>116.500</b> | <b>390.000</b> |
| - Komunitateen garapenerako 53 ingurumen-plan eta udal ingurumen plan bat taxutzea.   |                 |                  |                              |                |                |
| - Eskualde komiteetako kideei zuzendutako 30 prestakuntza-lantegi egitea.   |                 |                  |                              |                |                |
| - Emakumeen antolakuntzak eskualde komiteetan eta udal garapenean, baita tokiko gobernuan ere duen eragina areagotzea, lantegiak egin eta Emakumeen Antolakunde Autonomoaren eragin plana taxutuz.  |                 |                  |                              |                |                |
| - Udal Ingurumen Atala sendotzea, bertan lan egiten dutenen prestakuntza bultzatuz eta ingurumen-hezkuntzako metodologi gidaliburuak argitaratuz.   |                 |                  |                              |                |                |
| <b>Edateko ura eta ingurumen onbideratze iraunkorra nekazari-herrietan</b>  | <b>P-11-PER</b> | <b>Peru</b>      | <b>Arabako Medicus Mundi</b> | <b>105.000</b> | <b>390.500</b> |
| Huanta (Ayacucho depart.) eta Churcampa (Huancavélica) udalerrietan garatuko da proiektua.  |                 |                  |                              |                |                |
| - 25 komunitate edateko urez hornitzeko sistema sortzea. Edateko ura hornitzeko 27 sistema eraikiko dira, grabitatez funtzionatuko dutenak (ur biltegi bat iturrian, ubidea, presioa hausteko ganberak eta ura etxeetara banatzeko sarea izango dituzte). |                 |                  |                              |                |                |
| - Sistema horien administrazio batzarrak eratzea, eta bertako kideei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea.   |                 |                  |                              |                |                |
| - Populazioa sentsibilizatzea, higiene ohituren eta uraren kutsaduraren inguruan.   |                 |                  |                              |                |                |

### 2.1.2. “Garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuak identifikatu eta formulatzeko” diru-laguntzak emateko deialdia, 2006. urtea.

Diruz lagundutako proiektuetako askotan atzematen ziren hutsuneak gainditze aldera, aurretik bi aldiz (1999-2000 eta 2002-2003), sistema bat ezarri zuen Gasteizko Udalak helburu zabalagoak dituzten proiektuak identifikatu eta formulatzeari beta eta baliabide nahikoak eskaintzeko eta ondoren zenbait urtetarako lankidetzara proiektuak hautatu eta finantzatzeko.

Halaber, 2006an garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuak identifikatu eta formulatzeko beste deialdi bat onetsi zuen Gasteizko Udalak, zorrotz identifikatu eta formulatutako proiektuak aurkez zitezen; horietako batzuekin konpromiso formala hartuko du Gasteizko Udalak, bi helburu nagusirekin: alde batetik, Gasteizko eta garatze bidean dauden herrialdeetako elkarte eta kolektiboen artean elkartasun aktiboa sustatzea, eta bestetik, herrialde haietako populazioaren giza garapena bultzatzea.

2006an zabaldu zen deialdia, 60.000 €-ko zuzkidurarekin, baina 2007ko aurrekontuen kontura; urte horretako lehen hiruhilekoan ebatzi zen deialdia.

12 proposamen aurkeztu ziren eta 10etarako eman zen diru-laguntza.

Deialdi horren baitan onetsitako proiektuak ageri dira ondorengo taulan, baita dagozkien diru-laguntzak ere.

| PROIEKTUA  | KODEA        | HERRIALDEA  | GGKE                      | DIRU-LAGUNTZA |
|--|--------------|-------------|---------------------------|---------------|
| Familia nekazaritzan ingurumenaren iraunkortasunerako teknologia egokiak erabiltzea Florencio Varelan.   | 06-IP-01-ARG | Argentina   | ADSIIS fundazioa          | 6.190,00      |
| 1989az geroztik bideratzen ari den garapen integralerako estrategia baten barruan sartzen da. Basogabetze arazoaren eta lurren emankortasun apalaren aurrean, hauxe proposatzen da:  |              |             |                           |               |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• hondakin organikoak birziklatzeko teknikak abian jartzea,</li> <li>• kontzientzia harraraztea,</li> <li>• birziklatzeko eta gai organikoak energia-iturri bihurtzeko zerbitzu kolektiboak abian jartzea,</li> <li>• herri antolakunde eta erakundeei horretan murgilaraztea,</li> <li>• eta, bereziki, emakumeei.</li> </ul>  |              |             |                           |               |
| Tokiko garapen integral, parte-hartzezko, iraunkor eta genero berdintasunezkoaren kudeaketa sendotzea Tiquipaya udalerrian   | 06-IP-02-BOL | Bolivia     | Paz y Solidaridad Euskadi | 4.700,00      |
| Tiquipayako gizarte erakundeek eta udal gobernua –eraginkortasunez, gardentasunez eta gizon eta emakumeen benetako eta berdintasunezko parte hartzearekin– tokiko garapen iraunkorrerako politika publiko hitzartuak kudea ditzatela lortu nahi da.  |              |             |                           |               |
| Edateko uraren sistema integrala, denentzako eta kalitatezkoa, Sacabako udalerrian   | 06-IP-03-BOL | Bolivia     | PROCLADE Euskadi          | 6.320,00      |
| Gaur egun 142.000 biztanleko populazioa duen Sacabako hirigunean denentzako ur eta saneamendu sistema jartzea du xede proiektuak. Zehazki, hauek dira helburuak:   |              |             |                           |               |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eragile publiko eta pribatuek parte har dezaten beharrezko diren baldintzak sortzea.</li> <li>- Sistema publiko bakar bat eraikitzea: edateko ura jasotzea, biltegien hobekuntza, adukzioa, tratamendua eta banakuntza.</li> <li>- Ur eta saneamendu zerbitzuaren iraunkortasuna bermatuko duten erakundeak sendotzea.</li> </ul>   |              |             |                           |               |
| Dobako emakumeen sustapenerako zentro konplexu bat sortzea   | 06-IP-04-CHA | Txad        | Intermón-Oxfam            | 5.770,00      |
| Dobako emakumeen sustapenerako zentro konplexu bat eraikitzea aurreikusten du zenbait urtetarako proiektuak. Zehazki, honetarako baliatuko da:   |              |             |                           |               |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- indarkeriaren biktime diren emakumeei harrera egin eta entzuteko,</li> <li>- emakumeak alfabetatzeko,</li> <li>- prestakuntza eman eta produktu lokalak eraldatzeko,</li> <li>- produktu lokalak gorde eta merkaturatzeko.</li> </ul>   |              |             |                           |               |
| Berriazko helburuak hauek dira:  |              |             |                           |               |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- CELIAF Dobako kide diren emakumeen jabetzarako irispidea eta kontrola hobetzea,</li> <li>- CELIAF Dobako emakumeen elikapen, finantza eta gizarte segurtasuna hobetzea.</li> </ul>  |              |             |                           |               |
| Emakumeak ahalduntzea, beren gaitasunak, banakoak nahiz kolektiboak, garatuz, beren eskubideak galdatu eta balia ditzaten, Zacatecolucako udalerrian   | 06-IP-05-ELS | El Salvador | Mugarik Gabe              | 6.780,00      |
| Hiru ardatz garatu nahi ditu proiektuak:   |              |             |                           |               |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- emakumeen antolakuntza-gaitasunak sendotu eta areagotzea maila lokalean, gazteen integrazioa bereziki aintzat hartuz,</li> <li>- emakumeen "erreferentzia leku bat" bermatzea (emakumearen etxearen gisakoa), aldi berean biltokia izan dena eta bereziki emakumeen kontrako indarkeriaren alorreko zerbitzuak (harrera, prebentzioa) eskainiko dituen,</li> <li>- emakumeen heziketa formala, tekniko eta profesionala bideratzeko estrategia garatzea.</li> </ul> |              |             |                           |               |

| PROIEKTUA   | KODEA        | HERRIALDEA     | GGKE                                  | DIRU-LAGUNTZA |
|---|--------------|----------------|---------------------------------------|---------------|
| Emakumeak ahalduntzeko eta garatzeko lekuak eraikitzea, Mejicanos eta Ayutuxtepequen  | 06-IP-06-ELS | El Salvador    | PTM Mundu bat                         | 6.690,00      |
| Oinarrizko hiru osagai, populazio segmentu desberdinentzat:<br>a) Emakumeei laguntza integrala emateko bi zentro instalatzea.<br>b) Sentsibilizazio publikorako jarduerak garatzea, genero berdintasunaren, bortizkeriarik ezaren eta sexu nahiz ugalketa eskubideen inguruan.<br>c) Udal zereginetan genero ikuspegia txertatzea.  |              |                |                                       |               |
| Edateko ura eta saneamendua Usulutango nekazari herrietan   | 06-P-07-ELS  | El Salvador    | Solidaridad Internacional             | 6.510,00      |
| Berlín eta Mercedes Umaña udalerrietako 13 herritako osasun-egoera hobetzea, edateko ura helaraziz eta oinarrizko saneamendua jarritz, eta hartara higiene baldintza txarren ondoriozko gaixotasunak murriztuz:<br><ul style="list-style-type: none"> <li>• Ur eta saneamendu azpiegiturak egin eta eraberritzea, kalitatezko ura edukitzeko aukera izan dadin, eta gorotzak nonahi uztetik sortutako kutsadura murriztea.</li> <li>• Herrietako antolakuntza egiturak sendotzea.</li> <li>• Emakumeak erabakiak hartzeko lekuetan sartzeari, egitura horien baitan, haiei eragiten baitie gehien hornikuntzarik ezak.</li> </ul>   |              |                |                                       |               |
| Gizarte ehuna sendotzea, Cogoko barrutian   | 06-IP-08-GEC | Ekuatore Ginea | Asociación Africanista Manuel Iradier | 5.870,00      |
| Cogoko barrutiko populazioaren bizi-baldintzak hobetu nahi dira, eta pobrezia gutxitu, gizarte ehuna sendotuz; izan ere, ahultasun hori baita oztoporik handienetako bat garapen ekintza eta programen bitartez lortutakoan aurrera egin eta egonkortasuna emateko orduan.<br>Hiru jarduera-ildo handi ditu:<br>- Enplegu maila hobetzea, emakumeen eta gazteen elkarrekin sendotuz, ekoizpen ekimenak abian har ditzaten.<br>- Heziketa maila hobetzea, irakasleak prestatu eta barrutiko gazteei lanbide prestakuntza eskainiz.<br>- Osasun maila hobetzea, osasun hezkuntzaren bitartez eta oinarrizko osasun sorospena hobetuz.   |              |                |                                       |               |
| Baliabide gutxiko gazteentzako unibertsitate aurreko ikastetxea   | 06-IP-09-PER | Peru           | ADIPE Araba                           | 6.140,00      |
| Piura probintziako hiri-bazterretako baliabide gutxiko gazteei unibertsitate joateko eta lanbide-karrera egiteko aukera ematea, beren ongizate pertsonala eta familiarra hobetzeko.   |              |                |                                       |               |
| Huaycángo emakumearen udal etxea  | 06-IP-10-PER | Peru           | Arabako Medicus Mundi                 | 5.030,00      |
| Emakumeen eta genero berdintasunaren aldeko udal politika, plan eta zerbitzuak onetsi eta gauzatzea eragin nahi du hainbat urtetarako proiektuak. Horretarako, Huaycángo emakumearen etxea sortuko da, elkartze eta parte hartze foro gisa, eta baliabideak bertan bilduko.<br>Emakumearen udal etxea sortzearekin, lau ardatzetan eragin nahi du proiektuak, berariazko programen bitartez:<br><ul style="list-style-type: none"> <li>- Sexu eta ugaltze osasunaren alorreko programa</li> <li>- Famili bortizkeriaren alorreko programa</li> <li>- Diru-sarrerak sortzeko programa</li> <li>- Herritarren parte-hartzea eta parte-hartze politikoa sustatzeko programa</li> </ul> |              |                |                                       |               |

### 2.1.3. Garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuak partez finantzatzeko diru-laguntzak. 2007ko deialdia.

Zenbait urtetarako lankidetzak proiektuetarako deialdi berria zabaldu zen 2007an – gorago aipatutako zenbait urtetarako proiektuak identifikatu eta formulatzeko deialdia egin zen alde aurretik.

Deialdi berriak Gasteizko Udalaren lankidetzeta programa nagusia izaten jarraitzen du, guztira urtean 1.131.000 €-ko kopurua bereganatuko baitu, 2008tik 2011ra bitartean – 30.000 euroko 'lekukotasunezko' kopurua bereganatu zuen 2007an.

| DEIALDIA  | DIRU-LAGUNTZA |
|---|---------------|
| Garapenean laguntzeko zenbait urtetarako proiektuak partez finantzatzeko diru-laguntzak. 2007ko deialdia. | 30.000,00     |

2008ko lehen hiruhilekoan ebatziko da deialdia.

#### 2.1.4. Lankidetzarako urteko deialdia

Zenbait urtetarako proiektuetarako deialdiak bereganatu duen munta dela eta, halako diru-laguntzarik eskuratu ez duten GGKEek aurkeztutako jarduera txikiagoetarako laguntzak emateko aukera eskaintzen duen diru-laguntza programa bihurtu da urteko deialdia; 550.000,00 €-ko zuzkidura du, eta proiektu bakoitzeko gehienez ere 50.000 € ematen dira.

Nabarmentzekoa da 2006. urteko 350.000 €-etatik 550.000 €-tara pasatu zela 2007. urtean.

17 GGKEk aurkeztu zituzten proiektuak 2007ko deialdira, guztira 17 proiektu. Eskatutako diru-kopurua, guztira, 527.764,67 €-koa izan zen, hau da, erabilgarri zegoena baino gutxiago. Nolanahi ere, eskabideetako batek ez zuen garapenerako lankidetzeta-proiektua izatea eskatzen duen baldintza betetzen, eta baztertu egin zen.

Ez zen bete Saharaz beheko Afrikari emandako lehentasuna. Izan ere, 2006. urtean diru-laguntzen % 55 zuzendu ziren bertara, eta, oro har, % 64 Afrikara; 2007ko deialdian, berriz, onetsitako funtsen % 13,78 bakarrik bideratu zen eskualde horretara. Hori, gehienbat, ez zaio zor aurkeztutako proiektuen kalitateari, aurkeztu ziren hirurak onetsi baitziren, ezta barematze sistemari ere, ia-ia 2006koaren berdina izan baitzen; kontua besterik da, hau da, hiru eskabide bakarrik aurkeztu zirela Saharaz beheko Afrikarako, aurreko urteko zazpien aldean.

Ez da berdin gertatzen genero ikuspegia txertatzeari emandako lehentasunari dagokionez, oso apalak baitira atal horretan lortutako puntuazioak. Hala ere, onetsitako proiektuetako zenbait berariaz edo nagusiki emakumeei zuzenduta daude. Afganistanerako aurkeztutakoa nabarmendu daiteke.

Berrikuntza bat deialdian: lehenengo aldiz hiriko etorkin antolakunde batek, Kolonbia-Euskadi elkarteak, jatorrizko herrialdean garatzeko proiektu baterako diru-laguntza jaso du.

Horrez gain, Izan elkarteak Ganbiarako aurkeztutako proiektua beste etorkin elkarte batekin zerikusia duen ekimena da, nahiz eta Gasteizen presente ez dagoen elkarteak izan.

Etorkin elkarteak lankidetzaren eta baterako garapenaren esparruetan sartu izana berrikuntza kualitatibo interesgarria dugu; izan ere, beste herrialde batzuetatik etorritako hiritarrak dira, orain beren jatorrizko herrien garapenerako elkartasun eta lankidetzak ekintzak bideratzen hasiak direnak.

Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

| PROIEKTUA  | KODEA       | GGKE                            | HERRIALDEA | DIRU-LAGUNTZA |
|--|-------------|---------------------------------|------------|---------------|
| Ahuldade-egoera larrian dauden Herat hiriko emakumeak ahalduntzea  | 07-A-01-AFG | María de Maeztu forum feminista | Afganistan | 12.160,73 €   |
| <p>Ahuldade-egoera larrian dauden emakume afganiarren talde baten autonomia sendotzea, beren baldintza sozio-ekonomikoak hobetuz eta aukera-berdintasuna sustatuz; hartara, haien mende dauden senitartekoen egoerak ere hobera egingo du.</p> <p>Joskintza lantegi baten bitartez egingo da. 50 emakume hartuko dira, jostun gisa, inguruko eskoletako ikasleentzako uniformeak eta bizkar zorroak egiteko, lanbide horretarako gaituko dituen eta gero lanean jarraitu eta independentzia ekonomikoa lortzen lagunduko dien prestakuntza proiektu baten bitartez.</p>  |             |                                 |            |               |
| Ureztapen sistema, Irpuma nekazari herrian   | 07-A-02-BOL | ADRA fundazioa                  | Bolivia    | 36.306,09 €   |
| <p>Irpumako biztanleen bizitza kalitatea hobetzea dute helburu ureztapen proiektuak eta laguntza teknikoak. Soro berriak landu eta nekazaritza ekoizpena eta produktibitatea areagotuko dira, eta, hartara, pobrezia eta migrazioa murriztuko.</p>   |             |                                 |            |               |
| Obispo Bosque kantoiko 5 herritako elikapenaren alorreko segurtasun-egoera hobetzea  | 07-A-03-BOL | Manos Unidas                    | Bolivia    | 35.957,55 €   |
| <p>Egoera sozioekonomiko eskasean dauden bost nekazari-herritako hainbat familiaren –429tik gora– elikapenaren alorreko segurtasun-egoera hobetzea, ureztapen sistema bat jarri eta,aldi berean prestakuntza eta antolakuntza eskainiz.</p>  |             |                                 |            |               |
| Arazoak dituen haurtxoak zaintzea, bidenabar diru-sarrerak sortuz  | 07-A-04-CDM | SOLIVE                          | Boli Kosta | 13.466,18 €   |
| <p>Gerra garaian eta gerraondoa berrehundik gora haurtxo identifikatu dira, direla umezurtzak, direla burugaisotasunak dituzten edo HIESak kutsatuta dauden amen seme-alabak, beren familiek abandonatuak, zorigaiztoa edo zorte txarra ekartzen duten sineskeria dela eta.</p> <p>2005ean etxe bat eraiki zen, haur horiek jasotzeko. Amarik badute, harekin lan egiten da, sineskeriei aurre egin eta haurra berriro berekin har dezan. 180 haur inguru salbatu dira.</p> <p>Urtean 50 bat haurrentzako janaria eta osasun-zaintza finantzatzeko, bi oilategi jarri nahi dira (oilaskoak eta arrautzak jartzeko oiloak).</p> |             |                                 |            |               |
| Arriskuetatik babesteko eta horiek murrizteko obrak, "Tierra Firme" auzoan (Ibague). 1. fasea: euri-urak bideratzeko estolderia eraikitzea.  | 07-A-05-COL | Kolonbia-Euskadi elkarte        | Kolonbia   | 14.100,00 €   |
| <p>Pobrezia egoeran bizi diren 900dik gora lagun ditu Tierra Firme herriak, luiziren baten ondorioz hondamendia gertatzeko arrisku handian. Auzo horretan euri-urak bideratzeko estolderia eraikiz, bizi diren ingurune hori hobetzen lagundu nahi da.</p> <p>Euri-urak auzoa inguratzen duen San Roque haitzartean duen eragina murriztea da lehen fase horren helburua, guztia ere bertako Populazioa Babestu eta Arriskuak Murrizteko Planaren baitan.</p>  |             |                                 |            |               |
| Nekazaritza-eremuetako eskoletan laguntzeko proiektua: alfabetatzea, irakasleak prestatzea eta emakumeak sustatzea   | 07-A-06-ECU | Samán Rivier GGKE               | Ekuador    | 8.700,00 €    |
| <p>Nekazaritza-eremuetako sei eskola sortu berritan laguntzea. Izan ere, honako hauek behar dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Irakaskuntzarako laguntza.</li> <li>➤ Lekuan lekuko irakasleak prestatu era horiei laguntzea.</li> </ul>   |             |                                 |            |               |

| PROIEKTUA   | KODEA       | GGKE                        | HERRIALDEA  | DIRU-LAGUNTZA |
|---|-------------|-----------------------------|-------------|---------------|
| <p>➤ Eskolatu gabeko haurrei zuzendutako alfabetatze kanpainei ekitea, haurtzarorik izan ez duten haur horientzat espazio ludikoak sortzeaz batera.</p> <p>➤ Emakume talde antolatuen prestakuntza.</p>   |             |                             |             |               |
| Mejicanos udalerriko biztanleen osasunaren sustapena  | 07-A-07-ELS | ADECO                       | El Salvador | 34.487,10 €   |
| <p>P. Octavio Ortiz klinikako osasun sorospena sendotu eta areagotzea du helburu, zehazki nutrizioaren, aho-hortzetako osasunaren, sexu osasunaren eta osasun-gaikuntzaren alorretan. Horretarako, bai prebentzioa bai sendakuntza bere baitan hartuko dituen osasun programa orokor bat bideratuko da, egoerarik okerrenean daudenen osasun-premiei erantzute aldera. Izan ere, oinarritzko zerbitzueta jatzeko arazoak dituzte halakoek, erosteko ahalmen txikia izaki, eta prebentzioa medio aurre egin dakiekeen gaixotasunak izan ohi dituzte, beren bizimodu kaskarrarekin zerikusi zuzena dutenak.</p>   |             |                             |             |               |
| Buenos Aires eta San Antonio herrietako osasungarritasun egoera hobetzea, berdintasunezko parte-hartzearekin - I. fasea   | 07-A-08-ELS | Círculo Solidario           | El Salvador | 33.519,27 €   |
| <p>Osasungarritasun baldintzak hobetu, antolakuntza sendotu eta erabakiak hartzeko orduan emakumeen parte-hartzea areagotzea lortu nahi da, 330 familia bizi diren Armeniako bi nekazari-herritan. Ingurumen batzordeak sortuko dira proiektuaren baitan, etxeetako zaborraren arazoari konponbidea emateko, hondakin solidoak bereizi eta biltzeko sistema baten bitartez; modulu hidrosanitarioak jarriko dira, eremu kutsatuak berreskuratu eta ingurumenari buruzko sentsibilizazioa sustatuko, jabeakuntza prozesuetan aurrera egiteko, bertako espazio eta gaitasunak baliatuz. Gizonei eta emakumeei tradizioz leporatzen zaizkien rola gainditzeko eta aginte-harremanak aldatzeko ahaleginak egingo dira, proiektuaren jardura eta helburu guztien ardatz baita nahi hori.</p>                                   |             |                             |             |               |
| Nutrizioaren eta osasunaren alorreko prestakuntza, Nyammanariko erkidego-baratzearen onuradunentzat   | 07-A-09-GAM | IZAN                        | Gambia      | 6.935,48 €    |
| <p>Beren janari subiranotasuna hobetzeko, sei hektareatako erkidego-baratzea abian jarri eta hura urreztatzeko putzu bat eraikitzeko proiektuari ekin zion Nyammanari herriak 2006an.</p> <p>Esperientzia erabat berria izan zen baratzea eta putzua egitea, herri horretan lehendik sekula erabili gabeko nekazaritza ekoizpenerako sistemak eta kudeaketa ereduak erabiltzea ekarri baitzuen berekin (jario-ureztapena, erkidego-kudeaketa eta abar).</p> <p>Nolanahi ere, ezinbestekotzat jotzen da nutrizioaren eta higienearen alorreko prestakuntzarekin jarraitzea, herritarrek ez ditzaten baratzeako produktu guztiak saldu, eta beren eguneroko kontsumorako erabili ditzaten, behar diren baldintzetan erabili ere. Hain zuzen ere, helburu hori lortzeko prestakuntza plan bat garatzean datza proiektua.</p> |             |                             |             |               |
| Ezintasun fisikoak eta psikikoak dituzten Bangliko barrutiko (Bali) haur, gazte eta helduentzako sorospenezentro bat eraiki eta hornitzea   | 07-A-10-IDS | KUPU-KUPU                   | Indonesia   | 50.000,00 €   |
| <p>2000. urtetik, Bangli eta Gianyarreko barrutietan ari dira lanean, ezintasun fisikoak dituzten haur, gazte eta nagusien bizitza kalitatea hobetzeko. Ezintasunen bat duten 3.217 pertsona daude.</p> <p>Gaur egungo azpiegiturak (bulegoa, eskola...) Gianyarren daude. Zaila gertatzen da Bangliko barrutiko biztanleei laguntza ematea, urruntasuna dela eta. Horregatik, Banglin beste zentro bat ireki nahi da, barruti horretakoek premiei erantzun ahal izateko.</p>   |             |                             |             |               |
| Gizarte eragileak sendotzea famili, komunitate eta udal esparruan, San Lucas (Nikaragua) udalerraren inguruko eremuan, haur eta nerabe langileen eskubideak bete daitezen. 2. Fasea   | 07-A-11-NIC | Save the Children fundazioa | Nikaragua   | 44.461,83 €   |
| <p>Hondurasekiko mugako herrietako haur langileen eskubideak errespetarazteko lanari jarraipena ematen dio proiektuak. Hain zuzen ere, haur horiei lan egiteak dakartzkien arriskuak murriztu nahi ditu, ekintza hauen bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Haur eta nerabe langileen parte-hartzea sendotu, eskakizun eta proposamenak bideratzeko.</li> <li>- Gurasoak sentsibilizatu, haur eta nerabeen eskubideak aintzat har ditzaten, beren seme-alaba langileen arriskuez ohar daitezen eta arrisku horiek gutxitzeko neurriak aplikatu ditzaten.</li> <li>- Dauden herri eta udal espazioak sendotu, eskubideen defentsarako eta gizarte kontrolerako jarduerak garatzeko.</li> </ul>   |             |                             |             |               |
| Emakumeei eta haurrei laguntzea, Piurako San Sebastián giza kokalekuan  | 07-A-12-PER | ADIPE-Araba                 | Peru        | 46.919,76 €   |



| PROIEKTUA   | KODEA       | GGKE         | HERRIALDEA                       | DIRU-LAGUNTZA |
|---|-------------|--------------|----------------------------------|---------------|
| <p>Emakumeek eta haurrek Piurako bazter auzoetan bizi duten pobrezia eta gizarte bazterketa egoerari erantzuteko, San Sebastián giza kokalekuko emakumeen ongizatea eta berdintasuna sustatu nahi ditu proiektu honek, baita haurren nutrizio egoera hobetu ere. Honako hauen bitartez egingo du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Amen klubaren lokala handitu eta berregokitu, bertako zerbitzuak hobetzeko.</li> <li>- Amen klubean jantokia eta jostintza lantegia hornitu.</li> <li>- Lanbide prestakuntza: jostintza, eskulanak eta mikroenpresen kudeaketa.</li> <li>- Osasunaren eta nutrizioaren alorreko gaikuntza lantegiak.</li> <li>- Emakumeak gizartearen parte-hartzeko eta berdintasunerako gaitu.</li> <li>- Alfabetatze taldeak.</li> </ul>                        |             |              |                                  |               |
| Nutrizioaren, osasunaren eta gastronomiaren alorrean gaitzeko programa integrala, San Juan de Luriganchoko goi-aldeetako gazteentzat.   | 07-A-13-PER | SERSO        | Peru                             | 43.335,00 €   |
| <p>San Juan de Luriganchoko goi-aldeetako gazteentzako programa integral bat abian jarri nahi da. Nutrizioaren, osasunaren eta gastronomiaren alorrean gaitzeko moduluak hartzen ditu programak bere baitan, baita hazkunde pertsonalerako lantegiak ere, eta ebaluazio psikologikoa –banaka nahiz taldeka– eta nutrizioaren ingurukoa.</p> <p>Herrialde horretako ekoizpen eta zerbitzu sektoreetan dagoen lan eskaintza aintzat hartuko da, baita hiri-bazterretako gizarte sektore horien muga ekonomikoak ere, kalitatezko heziketa egokia jasotzea galarazten baitie horrek.</p> <p>Proiektuak hartzen duen eremuko populazioa batez ere gazteek osatzen dute; pobrezia egoeran bizi dira, eta Limako metropoliaren inguruko gainerako biztanleek baino lan eskasagoak izan ohi dituzte.</p> |             |              |                                  |               |
| Kinshasako kaleko haurrei lanbide bat ikasteko laguntza ematea  | 07-A-14-RDC | Alboan       | Kongoko Errepublika Demokratikoa | 50.000,00 €   |
| <p>Behin eta berriro gatazka armatuan murgildua dago herrialde hori: 3,5 milioitik gora hildako, 2 mila milioitik gora lekualdatu eta ia milioi erdi errefuxiatu.</p> <p>Kinshasako kaleko haurrei lanbide prestakuntza eskaini nahi zaie proiektu horren bitartez, gizarteratu daitezten, eta ekonomi eta lanbide baliabideak izan ditzaten.</p> <p>Lanbide-prestakuntzarekin batera –mekanika eta arotzeria–, balio demokratikoak landuko dira haurrekin, eta gizartearen dituzten eskubideen defentsa sustatuko.</p>   |             |              |                                  |               |
| "Etorkizuna itxaropenez". Haur eta gazteei laguntzea  | 07-A-15-RUM | COMPARTIR    | Errumania                        | 32.427,00 €   |
| <p>Kanpamendu eremuko baldintzak hobetu nahi dira, etxola bat, beste komuna bat eta aldagelak eraikitzen, heziketa-jarduna urte osoan gauzatu ahal izateko, baldintza egokietan.</p> <p>Arabako erakundearen laguntza ekonomikoa jasotzen duen Dragauko heziketa-guneko programa orokorraren baitan sartzen da jarduera hori, eta premia handiena duten haur eta gazteei eta umezurtegiak haurrei zuzendua dago.</p>  |             |              |                                  |               |
| Yaterasko (Guantánamo) nekazaritza eremu bakartuetako nekazarien etxebizitzak eguzki-argindarrez hornitzea  | 07-A-16-CUB | Euskadi-Cuba | Kuba                             | 47.988,50 €   |
| <p>Yaterasko udalerriko (Guantánamoko probintzia) nekazaritza eremu bakartuetako nekazarien 25 etxebizitza eguzki-argindarrez hornitu nahi dira, helburu orokorrak gogoan:</p> <p>Mendialdean, urruti eta bakartuta bizi diren Kubako nekazarien etxebizitzak argindarrez hornitzeak haien bizitza kalitatea hobetzen laguntzen du, eta hirirako eta herrialdeko beste leku batzuetarako emigrazioa gutxitzen.</p> <p>Argindarra edukiz gero, gutxitu egiten da emakumeen etxeko lana, hobetu egiten da familien osasuna (janarien kontserbazioa) eta eskuragarriago izaten dituzte prestakuntza, informazioa, kultura nahiz aisialdia (telebista eta irratia).</p>   |             |              |                                  |               |

## 2.1.5. Saharako herriarekiko lankidetzaren eta elkartasun hitzarmena

Arabako RASDaren Lagunen Elkartearekin 1995ean izenpetutako hitzarmena errefuxiatuta bizi direnen egoeraren eta Mendebaldeko Saharan bake prozesuak dituen gorabeheren testuinguru soziopolitikoaren baitan ulertu beharra dago. “Ez gerra, ez bake” testuinguruan, Marokok NBEren ekimenez izenpetutako akordioak betetzen ez dituen honetan, bake prozesua geldirik, nolabaiteko bizimodu duinari eusten lagundu nahi die Saharako programak Tindufeko kanpamenduetan bizi diren errefuxiatuei, baita dagoeneko hogeita hamabi urte baino gehiago errefuxiatuta bizitzen daramaten herritarrei itxaropenari eusten lagundu ere.

Testuinguru politiko zail horretan, aipatzekoa da La Guera *daira* eta Gasteiz hiria senidetu zirenetik hogei urte bete izana ospatu dela. Horrekin batera, honako hauek osatu dute 2007ko plana:

| Kodea  | Proiektua   | Ekarpena            |
|--|---|---------------------|
| <b>07-SA-01</b>  | <b>Saharako errefuxiatuentzako osasun programa</b>                                  | <b>44.000,00 €</b>  |
| Otorrinolaringologia eta oftalmologia adituen kirurgia misioak ahalbidetzen ditu proiektuak kanpamenduetan –saharar osasun sistemak bidaltzen dizkieten kasuetan egiten dituzten ebakuntzak–, baita osasun sistema neurri batean hornitzea ere (tresneria eta ebakuntza gelako, kontsultako nahiz laborategiko ekipoak berritzea). Programako tresneria nahiz osasun sistemako beste batzuk onik zaintzea, behar diren ordezkioak hornituz. Aurten kirurgia taldearen joanaldi bakarra planteatzen da. |   |                     |
| <b>07-SA-02</b>  | <b>Erizaintzaren irakaskuntzarako pedagogi berrikuntza eta laguntza</b>             | <b>38.800,00 €</b>  |
| Hauek dira aurten gauzatzeko diren jarduerak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Anatomia eta Fisiologia eta Medikuntza-Kirurgia Patologia eskuliburuak egin eta argitaratzea.</li> <li>- Pediatria eta Erizaintza eskuliburuak taxutu eta inprimatzea.</li> <li>- Kanpamenduetako irakasleak prestatzeko eta osasun-langileak birziklatzeko jarduerak.</li> <li>- Eskolako ikasleei zuzendutako hiru praktika-ikastaro.</li> </ul>  |   |                     |
| <b>07-SA-03</b>  | <b>Informazio azpiegiturarako laguntza</b>  | <b>8.400,00 €</b>   |
| Saharar Irrati Nazionalaren uhin laburreko transmisorerako konpondutako bi maskor hornitzea.   |   |                     |
| <b>07-SA-04</b>  | <b>SEBN sendotzea. Emakumeen etxea, Smara wilayan</b>                               | <b>9.690,00 €</b>   |
| Smarako Emakumearen Etxeko obrak bukatzea eta prestakuntza jarduerak egitera bideratua dago proiektua, baita UNMSaren kanpo jarduera zenbaitetarako laguntza ematera ere.  |   |                     |
| <b>07-SA-05</b>  | <b>Lanbide heziketa: Gazuani institutua</b>   | <b>30.150,00 €</b>  |
| Eraberritze obrak egitea Gazuaniko Lanbide Heziketako ikastetxean, 2006ko uholdeek egindako kalteen ondoren, eta bertan behera utzi behar izan zen prestakuntza programari berriro ekitea.   |   |                     |
| <b>07-SA-06</b>  | <b>Zerbitzu publikoetako pizgarrien sistemari laguntza</b>                          | <b>9.200,00 €</b>   |
| Proiektuen zuzeneko kostuen % 5 pizgarrien sistemara bideratzen da, hainbat zerbitzu publikoren funtzionamendua bermatze aldera (osasuna, hezkuntza, garraioa eta abar). Gasteizko Udalaren ekarpena, hasiera batean, Lankidetzako Ministerioko langileei pizgarriak emateko baliatuko da.   |   |                     |
| <b>07-SA-07</b>  | <b>La Guera dairaren eta Gasteizen arteko senidetzea: sentsibilizazio jarduerak</b> | <b>41.356,76 €</b>  |
| Bideo dokumental bat egin eta ekoiztea: filmazioak, elkarrizketak eta errefuxiatu jendeak erabili eta botatzeko kamerekin ateratako argazkiak.   |   |                     |
| <b>07-SA-08</b>  | <b>Janarietarako laguntza</b>   | <b>39.200,00 €</b>  |
| Saharako Ilgora Gorriak oinarritzko zenbait janari (dilstak, azukrea, irina eta abar) erostea Aljeriako merkatuan eta kanpamenduetara garraiatzea, herritarren artean banatzeko; izan ere, NBEren janari-laguntzek izandako murrizketak eragin handia izan du janari stocketan.  |   |                     |
| <b>07-SA-09</b>  | <b>Ospitale eta osasun zentroak mantentzea</b>                                      | <b>12.870 €</b>     |
| Mantentze sistema nagusi bat abian jartzea, ospitale eta osasun zentroi laguntzeko, uraren, argindarraren, aire girotuaren eta elektromedikuntzaren arloetan.  |   |                     |
|  | Zeharkako kostuak   | 16.333,24 €         |
| <b>GUZTIRA</b>   |   | <b>245.550,00 €</b> |

## 2.1.6. Euskal Fondoarekiko hitzarmena

Euskal Fondoa - *Asociación de Entidades Locales y Forales Vascas Cooperantes* elkarteko kide da Gasteizko Udala, eta hitzarmen orokor baten bidez araututa dago erakunde horrekiko lankidetzaz. Horren ildotik, urtez urte plan eragile bat taxutzen da, bideratuko diren jarduera eta proiektuak nahiz bakoitzak egingo dituen ekarpenak finkatzeko.

Jarduera hauek hartu zituen bere baitan 2007ko programak:

| KODEA  | PROIEKTUA   | HERRIALDEA  | EKARPENA (€) |
|--|---|-------------|--------------|
| 07-EF-01-ELS   | Ur zikinen tratamendua (Jabalí 2, Nejapa), 1. fasea               | El Salvador | 125.603,00   |
| 07-EF-02-ELS   | 3,5 km kale eraberritzea, hirigunean. Fray Bartolomé de las Casas | El Salvador | 56.000,00    |
| 07-EF-03-GUA   | Kalea konpontzea. San Francisco Menéndez. Ahuachapán              | Guatemala   | 28.397,00    |
| 07-EF-04   | EHUko ikastaldi programa  |             | 5.000,00     |
| Karrera amaierako ikastaldiak lankidetzaz-proiektuetan egiteko programa. Bereziki, Arabako campuseko Gizarte Laneko Eskolak eta Irakasle Eskolak parte hartuko dute programa horretan. |   |             |              |
| Bazkide kuota  |   |             | 10.561,28    |
| GUZTIRA  |   |             | 225.561,28   |

### 2.1.7. Agadirrekiko (Maroko) hitzarmena

Euskadiko Tierra de Hombres, Marokoko TdH eta Agadirreko bi elkarerekin –Oum El Banine eta Ard Al Atfal– izenpetu da hitzarmen berria. Funtsean ama ezkongabeei eta baztertze egoeran dauden emakume eta haurrei zuzendutako zerbitzuak kudeatzen dituzte. Lau urteko hitzarmena proposatu zen, bi helbururekin: batetik, programa horietan laguntzea, eta, bestetik, udaleko gizarte zerbitzuen eta Agadirreko gizarte sektoreko langileen arteko trukeak erraztea (bai Agadirreko zerbitzuak, bai gure hirian etorkin magrebiarrei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko).

## 2.2. Gizaldeko ekintza, giza eskubideak babestea eta larrialdiak

### 2.2.1. Giza eskubideak babesteko deialdia

Garapenerako laguntzaren alorrean lan egiten hasi zenetik bultzatu izan ditu Gasteizko Udalak giza eskubideak babesteko programak.

Laguntzak mugatuak izaki, gatazka egoeran nahiz gatazka ostekoan beren osotasun fisikoa arriskuan zuten pertsonak babestea eta horiei laguntzea helburu zuten ekintzetarako bakarrik eman ohi zen laguntza aurreko urteetan. 2006. urtean komenigarritzat jo zen mundu osoan beren eskubideak maiz bortxatuak ikusi ohi dituzten hiru multzotara zabaltzea laguntzak: emakumeak, haurrak eta espetxeratuak. Deialdiaren arrakasta eta funtzionamendu ona ikusirik, handitu eginda diru-zuzkidura, eta guztira 150.000 € bideratu dira horretara. Ohiko babes eta laguntza jardueraz gain, beste hauek ere aintzat hartu ziren deialdiaren oinarrietan:

- Emakumeen eskubideak urratzearen kontrako borrokan aritzeko jarduera programak:
  - emakumeen kontrako diskriminazioaren inguruko adierazpenak,
  - genero-indarkeria: bortizkeria fisikoa nahiz psikologikoa, emakume eta neska trafikoa...
- Haurrak babesteko eta haiek artatzeko programak.
- Laguntza espetxeetan: laguntza osoa, lege aholkularitza, osasun-laguntza eta psikologikoa, hezkuntza.

Horretaz gain, deialdi honekin, egoera horiei, gertatzen diren testuinguruei, gertatzeko arrazoiei eta alderdiei nahiz konponbidea lortzen lagundu dezaketen ekintzei buruzko informazio eta sentsibilizazio lanean lagundu nahi da.

| Aurkeztutako proiektu kopurua | Onartutako proiektu kopurua | Eskatutako kopurua, guztira | Emandako kopurua, guztira |
|-------------------------------|-----------------------------|-----------------------------|---------------------------|
| 8                             | 5                           | 256.637,60 €                | 146.647,96 €              |

Hauek izan ziren diruz lagundutako proiektuak:

| PROIEKTUA  | KODEA               | GGKE  | HERRIALDEA        | DIRU-LAGUNTZA (€) |
|--|---------------------|---|-------------------|-------------------|
| <b>“Betania” etxea, indarkeria egoera bizi duten emakumeak eta horien seme-alabak aldi baterako hartzeko</b>   | <b>07-DH-01 ARG</b> | <b>Obras Misionales Pontificias</b>                   | <b>Argentina</b>  | <b>12.000,00</b>  |
| Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eta horien seme-alabei laguntza ematea, eta aldi baterako babestokia.   |                     |   |                   |                   |
| <b>Tokian tokiko gaitasunak sendotzea, Nikaraguan haur salerosketa galarazteko (II. fasea)</b>   | <b>07-DH-02 NIC</b> | <b>Save the Children fundazioa</b>                    | <b>Nikaragua</b>  | <b>40.000,00</b>  |
| Aurreko urtean hasitako proiektuaren jarraipena da. Haur eta nerabeen salerosketaren arazoari aurre egin nahi zaio, prebentzioaren bitartez, ikastetxeetan sentsibilizazioa bultzatuz. |                     |   |                   |                   |
| <b>Preso dauden emakumeen eta horien seme-alaba</b>  | <b>07-DH-03 AFG</b> | <b>María de Maeztu Forum Feminista, Asociació per</b> | <b>Afganistan</b> | <b>39.998,00</b>  |

| PROIEKTUA  | KODEA               | GGKE  | HERRIALDEA          | DIRU-LAGUNTZA (€)   |
|--|---------------------|---|---------------------|---------------------|
| <b>adingabeen oinarriko giza eskubideen sustapena, Afganistango kartzeletan (II. fasea)</b>  |                     | <b>als Drets Humans a l'Afganistan (ASDHA) elkartearekin partzuergoan</b> |                     |                     |
| Kabul eta Mazar-e-Sharif-eko kartzeletan preso dauden emakumeen bizitza eta osasun egoera hobetzea, beren familiekiko harremanak lehengoratzeta, lege aholkularitza eta lanerako prestakuntza.             |                     |   |                     |                     |
| <b>Emakumeen eskubideen sustapena, genitalen mutilazioa bertan behera uzteko, Burkina Fason</b>  | <b>07-DH-04 BUR</b> | <b>Haurralde fundazioa</b>  | <b>Burkina Faso</b> | <b>35.283,96 €</b>  |
| Emakumeen genitalen mutilazioak murriztea lortu nahi da sentsibilizazioaren bitartez, baliabiderik gabeko eta analfabetismo maila handiko eremu batean, non ohiturek legeak baino balio handiagoa baitute. |                     |   |                     |                     |
| <b>Tamil Naduko neska eta emakumeek hezkuntza eta osasuna gizonetako bezain eskuragarri izan ditzaten: emakume guztientzako giza eskubideak</b>  | <b>07-DH-05 IND</b> | <b>Haurralde fundazioa</b>  | <b>India</b>        | <b>19.366,00 €.</b> |
| Osasunaren sustatzaileak gaitzea, esku-hartze orokor baten baitan, emakumeen egoera hobetzeko, genero-indarkeriaren prebentzioa bultzatu eta giza eskubideen egoera hobetuz.                               |                     |   |                     |                     |

## 2.2.2. Larrialdietarako Arabako Funtsa

Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Vital Kutxak jarri zuten abian Larrialdietarako Arabako Funtsa 2005. urtean, garatzen ari diren herrialdeetako larrialdi egoeretan esku hartzeko aukera emango zuen tresna arin eta eraginkor bat izateko asmoz.

Erakunde horiei garatzen ari diren herrialdeetako larrialdi egoeretan laguntzeko aukera emango dien tresna gisa dago pentsatua, beraz, funts hori; hartara, laguntza ekonomiko azkarra eman ahal izango zaie, unean-unean, larrialdietan esku hartzeko gaitasuna frogatua duten erakundeei. Protokolo bat finkatua dago laguntzak onesteko, urtez urte berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu ahal dena.

Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak egindako ekarpenak Vital Kutxa fundazioaren barruko kontabilitate-kontu batean jasota geratzen dira. Hartara, esleitzeko erabakia onetsi bezain laster ordaintzen ditu laguntzak Vital Kutxa fundazioak.

2007. urtean larrialdi egoera hauetarako eman zen laguntza, aurreko urteetan jarritako funtsak baliatuz:

| KODEA         | ESKU-HARTZEA  | HERRIALDEA | GKE                               | EKARPENA (€) |
|---------------|---|------------|-----------------------------------|--------------|
| 07-FAE-01-IDS | Sumatrako uholdeak (Langkat barrutia / Sumatra Iparreko probintzia) | Indonesia  | Arabako Gurutze Gorria            | 30.000,00    |
| 07-FAE-02-PER | Peruko lurrikara (Ica, Manzanilla auzoa)                            | Peru       | Euskal Herriko karmeldar oinutsak | 44.552,04    |
| 07-FAE-03-PER | Peruko lurrikara (Pisco hiria)                                      | Peru       | ADRA fundazioa                    | 29.500,00    |
| 07-FAE-04-PER | Peruko lurrikara (Ica, 5 barruti)                                   | Peru       | Save the Children                 | 45.947,96    |

|               |  |            |                   |            |
|---------------|--|------------|-------------------|------------|
| 07-FAE-05-BAN | SIDR zikloia (Patuakhali, Bhola eta Barisal barrutiak) | Bangladesh | Save the Children | 90.000,00  |
|               | GUZTIRA  |            |                   | 240.000,00 |


2007an larrialdiei aurre egiteko funtsak hartzen zituen bere baitan Gasteizko Udalak 2006an egindako ekarpenak. Hori dela eta, oso txikia izan zen iaz egindako ekarpena:

Larrialdietarako Arabako Fondorako ekarpena, guztira 12.153,26 €

## 2.3. Gasteizko Udalaren lankidetzaren datu nagusiak

### 2.3.1. Lankidetzaren eta gizaldekoko ekintza

Kalkuluak egiterakoan, giza laguntzat jo ditugu larrialdiko laguntzetara bideratutako diru kopurua eta giza eskubideak babesteko deialdiko diru-laguntzak, baita argi eta garbi giza laguntzak diren Saharako programaren baitako jarduerak ere, hau da, janaria eskuratzeko laguntza eta "Osasuna Saharako herriarentzat" kirurgia proiektua.



2007ko lankidetzaren, arloz arlo

### 2.3.2. Herrialdeen arabeko banaketa

Ez ditugu banaketa geografikoan sartu larrialdiko laguntzari dagozkion datuak, izan litezkeen larrialdietarako egiten baita ekarpena, eta, horregatik, 2007ko funtsak oraindik erabili gabe daude. Era berean, bazter utzi ditugu 2007ko zenbait urtetarako deialdiaren kopurua (esleitu gabe) eta Euskal Fondoaren zeharkako kostuak. Beraz, lankidetzari eta gizaldekoko ekintzei baino ez dagozkie datu hauek:


| HERRIALDEA   | DIRU-KOPURUA (€) | HERRIALDEA     | DIRU-KOPURUA (€) |
|--------------|------------------|----------------|------------------|
| El Salvador  | 495.589,37       | Kuba           | 47.988,50        |
| Guatemala    | 241.397,00       | Burundi        | 35.283,96        |
| RASD         | 208.643,24       | Errumania      | 32.427,00        |
| Peru         | 206.424,76       | India          | 19.366,00        |
| Nikaragua    | 200.961,83       | Argentina      | 18.190,00        |
| Bolivia      | 183.783,65       | Maroko         | 15.800,00        |
| Kolonbia     | 131.600,00       | Boli Kosta     | 13.466,18        |
| Afganistan   | 52.158,73        | Ekuador        | 8.700,00         |
| Indonesia    | 50.000,00        | Gambia         | 6.935,48         |
| Kongoko E.D. | 50.000,00        | Ekuatore Ginea | 5.870,00         |
|              |                  | Txad           | 5.770,00         |

Ohiko sakabanaketa ageri ohi da, 21 herrialdetan esku hartu baita. Zenbait urtetarako deialdiko proiektuak eta Euskal Fondoarenak erabakigarriak dira herrialdez herrialdekako banaketari dagokionez:

- Deigarria da iaz El Salvadorrek bereganatu zuen pisua; izan ere, zenbait urtetarako bi proiektuz gain, Euskal Fondoaren bi proiektu eta urteko deialdiko beste bi ari dira bertan gauzatzen.

- Zenbait urtetarako bi proiektu Guatemalan ari dira gauzaten, eta Euskal Fondoaren programaren baitako proiektu bat gehitu behar zaie horiei.

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikora, hau da, Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetara bideratutako diru-kopurua, berriz, RASDaren Lagunen Elkartearikiko hitzarmenari zor zaio.




### 2.3.3. Geografi eremuen araberako banaketa

Gehienbat Ertamerika eta Karibea nabarmentzen dira oraingoan ere. Magrebaren pisua RASDarekiko lankidetzaren eta Agadirrekiko hitzarmenaren baturari zor zaio. Urteko deialdian Saharaz beheko Afrikari emandako lehentasunak ez du berekin ekarri eskualde horrek pisu nabarmena hartzea.

| GEOGRAFI EREMUA        | DIRU-KOPURUA (€) |
|------------------------|------------------|
| Europa                 | 32.427,00        |
| Saharaz beheko Afrika  | 117.325,62       |
| Asia                   | 121.524,73       |
| Magreba                | 224.443,24       |
| Hegoamerika            | 548.698,41       |
| Ertamerika eta Karibea | 985.936,70       |
| Guztira                | 2.030.355,70     |





### 3. Sentsibilizazio programa

Garapenerako laguntzaren alorreko jarduerak abian jarri zituenez geroztik, beti uste izan du Gasteizko Udalak laguntza horren jomuga nagusietako bat elkartasunaren kultura sustatzeak izan behar duela. Horrenbestez, GGKEek egiten duten sentiberatze lanerako eta garapenerako hezkuntzarako ere ematen du laguntza, horretarako berariaz atondutako diru-laguntza deialdien bidez nahiz hitzarmenen bidez.

Diru-laguntza deialdi publikoei eta hitzarmenei buruzko informazio zehatza ematen da ondoren, baita informazioaren, zabalkundearen eta prestakuntzaren arloan 2007an bideratutako beste hainbat jardueri buruzkoa ere.

#### 3.1. Sentsibilizazio ekintzetarako diru-laguntzen azpiprogramak.

##### 3.1.1. Diru-laguntza deialdia: “Garapenerako Hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak finantzatzea”

Deialdi horren baitan –2005ean egin zen deialdia, aldezturik “Garapenerako Hezkuntzarako zenbait urterako baterako proiektuak identifikatu eta taxutzeko deialdia” egin zelarik–, hiru ikasturteko iraupeneko bi proiektu onetsi ziren, zein 2005/2006 ikasturtean jarri baitziren abian.

Zorrotz identifikatu eta formulatutako xede-talde berarekin modu jarraituan gauzatzeko hezkuntza proiektuetarako laguntza eman nahi izan da horren bitartez.

Garapen-hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak finantzatzeko deialdiaren datu orokorrak:

| Aurkeztutako proiektu kopurua | Onartutako proiektu kopurua | Eskatutako kopurua, guztira | Emandako kopurua, guztira |
|-------------------------------|-----------------------------|-----------------------------|---------------------------|
| 3                             | 2                           | 325.648,43 €                | 222.400,00 €              |

Garapen-hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak finantzatzeko deialdiko proiektuak:

| PROIEKTUA  | KODEA     | GGKE   | DIRU-LAGUNTZA (€) |                         |
|--|-----------|--|-------------------|-------------------------|
|  |           |  | 2007              | GUZTIRA (3 IKASTURTEAK) |
| “Han eta hemen, amets eta jolas”   | 07-EDP-01 | SERSO Euskalherria (partzuergo buru), Gizakien lurra eta Arduradun Eskola.         | 28.400,00         | 82.600,00               |
| Elkartasunaren, gatazka-konponketaren eta haurren eskubideen inguruko balioei buruzko hezkuntza.   |           |  |                   |                         |
| Erruz kontsumitu, zentzuz kontsumitu   | 07-EDP-02 | Paz y Solidaridad fundazioa (partzuergo buru), Mugarik Gabe eta SETEM Hego Haizea. | 62.000,00         | 139.800,00              |
| “Egin bira lurbirari” programatik sortutako proiektua; kontsumo arduratsuen eta horren hainbat alderdiren inguruan kontzientzia harrarazten laguntzea helburu duena: elikapen subiranotasuna, lan eskubideak, bidezko merkataritza, erosketa publiko etikoa, aztarna ekologikoa... |           |  |                   |                         |

### 3.1.2. Diru-laguntza deialdia: Gasteizen burutzeko nazioarteko elkartasunaren alorreko sentsibilizazio jarduerak finantzatzen laguntzea.

Gasteiztarren artean elkartasun jarrerak sustatzen dituzten ekintzak bultzatzea du helburu deialdiak. Informazio eta jendea arazoez jabeaztearekin lotutako unean uneko sentsibilizazio ekintzak dira horiek, garatze bidean dauden herrien egungo egoeraren berri izan dezan hartara jendeak, eta herrialde pobre horien eta aberatsen arteko alde handiak bere horretan irautearen arrazoiez ohar dadin, bai eta batzuk nahiz besteak eraginpean hartzen dituzten arazoaren arteko loturez ere.

25.000,00 €-ko zuzkidura zuen hasiera batean sentsibilizazio deialdiak. Gerora, ordea, 12.056,22 € gehitzea onetsi zen, eta, horrenbestez, 37.056,22 €-koa izan zen, guztira, 2007ko deialdiaren zuzkidura.

Gasteizen burutzeko nazioarteko elkartasunaren alorreko sentsibilizazio jardueretarako deialdiaren datu orokorrak

| AURREKONTUA (€) | AURKEZTUTAKO PROIEKTU KOPURUA | ONARTUTAKO PROIEKTU KOPURUA | ESKATUTAKO KOPURUA, GUZTIRA (€) | EMANDAKO KOPURUA, GUZTIRA (€) |
|-----------------|-------------------------------|-----------------------------|---------------------------------|-------------------------------|
| 37.056,22       | 17                            | 13                          | 29.031,90 €                     | 28.255,00                     |

Gasteizen burutzeko nazioarteko elkartasunaren alorreko sentsibilizazio jardueretarako deialdiko proiektuak

| PROIEKTUA   | KODEA   | GGKE   | DIRU-LAGUNTZA (€) |
|---|---------|--|-------------------|
| Itxaropenerako egun bat   | 07-S-01 | Intermón Oxfam   | 2.500,00          |
| Duela hogeit urtetik hona 47 hiritan batera ospatzen den elkartasun festa; oraingo honetan, Hegoko emakumeen errealitatearen inguruan.                                  |         |  |                   |
| Baliko ezinduen arazoei buruzko zabalkunde eta sentsibilizazio kanpaina   | 07-S-02 | Kupu-Kupu, Niños de Bali   | 2.475,00          |
| Argazki erakusketa ibiltaria, Gasteizko hamar gizarte etxetan barrena, ekintza osagarriekin.  |         |  |                   |
| "México, dualidad sociotecnológica y alfabetización sociovirtual" jardunaldia   | 07-S-03 | Hegobit Aldea  | 1.000,00          |
| Unibertsitari gazteei Mexikoko herri indigenetako alfabetatze soziobirtualerako proiektuaren berri emateko jardunaldia.   |         |  |                   |
| Mahai-ingurua: "La realidad de los niños y niñas soldado"   | 07-S-04 | Save The Children, Alboan eta Amnesty International erakundeen partzuergoa     | 2.500,00          |
| Kongoko Errepublika Demokratikoko bi pertsonen lekukotasuna: haur soldadu izandako batena eta haur horiek desmobilizatu eta gizarteratzeko proiektuaren zuzendariarena. |         |  |                   |
| Bidezko merkataritzaren kalea   | 07-S-05 | Setem Hego Haizea  | 2.500,00          |
| Bidezko merkataritzaren inguruko baliabide eta esperientziak bildu eta sistematizatzea, eta talde berriekin ekimena bideratzea.   |         |  |                   |
| Jaka aldatzeko antzerkia  | 07-S-06 | Setem Hego Haizea  | 2.500,00          |
| Jantzi Garbiak kanpainaren baitako antzerki lana, kontsumitzaileei ehungintza-merkatuan izan dezaketen eraginaz ohartarazteko.  |         |  |                   |
| "La voz de los niños y niñas que trabajan"  | 07-S-07 | Save the Children  | 2.350,00          |
| Latinamerikako zenbait haur eta nerabe langileri beren esperientziak kontatzen entzuteko antolatutako saioak  |         |  |                   |
| "Ayudemos a Colombia"   | 07-S-08 | Kolonbia-Euskadi eta Alternativa Juvenil kultur elkartearen arteko partzuergoa | 2.500,00          |

| PROIEKTUA   | KODEA   | GGKE   | DIRU-LAGUNTZA (€) |
|---|---------|--|-------------------|
| Kolonbiako errealtateari buruzko sensibilizazio kanpaina. Zehazki, 500 bat etorkinen jatorria den Ibagué hiriko egoera jorratuko da.  |         |  |                   |
| <i>África... nombre de mujer</i>  | 07-S-09 | Grupo Pro-África partzuergoa                           | 2.480,00          |
| Sensibilizazio kanpaina, Arabako hainbat udalerritan, argazki erakusketa baten bitartez. Hain jarduera osagarri ere egingo dira.  |         |  |                   |
| <i>Alto y claro. Las mujeres hablamos</i>   | 07-S-10 | PTM-Mundu bat eta <i>Círculo Solidario</i> partzuergoa | 2.100,00          |
| Hegoaldeko herrialdeetako emakumeen borrokei buruzko asteen antolakuntza.   |         |  |                   |
| <i>Cumbres solidarias</i>   | 07-S-11 | IZAN   | 2.095,00          |
| Peruko ekoturismoari buruzko hitzaldia eta bideo-konferentzia, Arabako Mendi Federazioko klubetako bazkideentzat.   |         |  |                   |
| <i>Imágenes de otros lugares: dualidades emergentes, India y México</i>   | 07-S-12 | Hegobit Aldea eta Sodepaz partzuergoa                  | 800,00            |
| Emakumeek Indian eta etorkin mexikarrek EEBBetan bizi dituzten egoerei buruzko zine-forua, eta espazio birtual bat sortzea, FotoBIT lehiaketa.  |         |  |                   |
| Kulturarteko hezkuntza eta garapenerako lankidetzak   | 07-S-13 | Ekilore Munduan  | 2.455,00          |
| Euskadiko hezkuntza sistemaren eta Ekuadorreko kulturarteko hezkuntza elebidunerako sistemaren arteko lankidetzak bideak urratzera zuzendutako proiektua; bisitaldiak eta bilerak egingo dira, baita jardunaldi batzuk ere. |         |  |                   |

### 3.1.3. Diru-laguntza deialdia: “Garapenerako hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak identifikatu eta formulatzea”

Urte bukaeran kaleratu zen bigarren deialdi hori, zeinen helburua baita gehienez hiru urteko epean gauzatzeko diren garapenerako hezkuntzako proiektuak identifikatu, planifikatu eta horien formulazio teknikoak egiteko ekintzak bermatzea, gerora Gasteizko Udalak, formulazio teknikoari dagokionez nahikoa berme duelarik, laguntza emateko modua izan dezan.

Lotura estua du deialdi horrek 2008. urtean egingo den beste batekin, hau da, zenbait urtetarako garapenerako hezkuntzarako baterako proiektuak finantzatzeko deialdiarekin; izan ere, emandako diru-laguntzak baliaturik egoki identifikatu eta formulatutako proiektuak aurkeztu ahal izango dira hartara, baita identifikatu, planifikatu eta formulatzeari dagokionez betebeharrak eta berme berberak betetzen dituzten beste batzuk ere.

Proiektuak identifikatu eta formulatzeko deialdirako diru-kopurua 15.000,00 eurokoa izan zen.

Proiektuak identifikatu eta formulatzeko deialdiaren datu orokorrak

| AURREKONTUA (€) | AURKEZTUTAKO PROIEKTU KOPURUA | ONARTUTAKO PROIEKTU KOPURUA | ESKATUTAKO KOPURUA, GUZTIRA (€) | EMANDAKO KOPURUA, GUZTIRA (€) |
|-----------------|-------------------------------|-----------------------------|---------------------------------|-------------------------------|
| 15.000,00 €     | 4                             | 3                           | 31.034,45                       | 15.000,00                     |

Garapen-hezkuntzako zenbait urtetarako baterako proiektuak identifikatu eta formulatzeko deialdiko proiektuak

| PROIEKTUA   | KODEA     | GGKE   | DIRU-LAGUNTZA (€) |
|---|-----------|--|-------------------|
| Haurren eskubideei buruzko sentsibilizazioa, hezkuntza ez formalean nahiz formalean   | 07-IFP-01 | Serso Euskalherria, Tierra de Hombres eta Arduradun Eskola elkarte | 5.400,00          |
| Nerabe eta gazteei, monitoreei eta gurasoei zuzendurako balio-hezkuntza, arlo ez formalean nahiz formalean.                                   |           |  |                   |
| Erruz kontsumitu, zentzuz kontsumitu  | 07-IFP-02 | SETEM, Mugarik Gabe eta Paz y Solidaridad                          | 4.900,00          |
| Kontsumo arduratsua, herritarrei zuzendutako hezkuntzarako estrategia-ildo gisa.  |           |  |                   |
| <i>Alto y Claro. Las mujeres hablamos</i>   | 07-IFP-03 | Mundubat eta Círculo Solidario Euskadi                             | 4.700,00          |
| Hegoko eta Iparreko emakumeak elkarrengana hurbiltzea eta elkar hobeto ezagutzea. Emakume taldeei eta Adinekoen Elkartasun Taldeari zuzendua. |           |  |                   |

## 3.2. Lankidetzeta-hitzarmenak

### 3.2.1. SETEM-HEGO HAIZEAREKIKO hitzarmena, Gasteizko Udalaren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko

Bere jardueraren esparruan bidezko merkataritza sustatzeko erabakia hartua duelarik Gasteizko Udalak, bidezko merkataritzako kafea erabil zezatela eskatu zien edari beroak saltzeko makinak jartzen dituzten enpresei "gizarte etxe eta kirol instalazioetan edari hotzak, beroak eta bestelako produktuak saltzeko makinak jarri eta ustiatzeko lizentziak emateko" egindako azken lehiaketa publikoan. Hartara, kafea nongoa den adierazteaz gain, argi eta garbi iragarri beharra daukate "Bidezko Merkataritza"koa dela.

Lehiaketaren baldintza teknikoan agirian adierazten zen ezen, kafearen benetakotasuna bermatzeko, aldiari aldiko kontrolak egiten utzi beharko zuela esleipena jasotzen zuen enpresak. Hitzarmen bat egin zuen Gasteizko Udalak Setem-Hego Haizearekin 2003. urtean, eta bertan zehaztu zen nola egingo ziren kontrol horiek, eta, bidenabar, bidezko merkataritza sustatu eta ezartzera bideratutako beste hainbat jarduera adostu ziren. Berritu egin zen hitzarmena 2004. urtean, eta urtez urte modu automatikoan luzatuko zela zehaztu; horren ondorioz, indarrean egon da 2005ean ere.

### 3.2.2. Mugarik Gabe GGKEAREKIKO lankidetzeta-hitzarmena, XIII. Zinema eta Lankidetzeta Erakustaldirako.

Mugarik Gabe erakundearen estrategia arloetako bat herri indigenena da, eta gai horren inguruko erakustaldi bat egin ohi du bi urtean behin.

2007an egindako XIII. Erakustaldian herri indigenei buruzko fikziozko bideoak eta dokumentalak eskaini ziren, Guridi zinema-aretoetan, Euskal Herriko Unibertsitatean – Arabako campusa– eta Arte eta Lanbide Eskolan. Hain zuen ere, "Raíz de la Imagen" Herri Indigenen VIII. Zinema eta Bideo Jaialdian –Oaxaca (Mexiko), 2006ko maiatza–

hautatutako lanak erakutsi ziren. Halaber, hiru errealizadore indigena izan ziren erakustaldian, eta hitzaldiak eman zituzten, hiru leku horietan.

Zehazki, ekintza hauek gauzatu ziren hitzarmenaren baitan:

- Sentsibilizazio kanpaina eta publizitatea.
- Argitalpen bat egin eta banatzea.
- XIII. Zinema eta Lankidetzaren Erakustaldia: "*Los Pueblos Indígenas protagonistas de su imagen*": fikziozko bideoen eta dokumentalen emanaldiak eta errealizadore indigenen hitzaldiak.

Hitzarmenerako ekarpen ekonomikoa 20.100,00 eurokoa izan zen.

### **3.2.3. EAEko GGKEen Koordinakundearen (Arabako ordezkariak), Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena**

Badira zenbait urte Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak EAEko GGKEen Koordinakundearen Arabako ordezkariarekin elkarlanean dihardutela, beren Garapenean Laguntzeko Zerbitzuen bitartez.

GGKEen koordinakundearen (Arabako ordezkariak) funtzionamenduan lagundu eta hori sendotzea du helburu 2005. urteaz geroztik izenpetzen den hiruren arteko hitzarmen horrek.

Garatu beharreko ekintza zehatz hauek finkatu ziren 2007ko hitzarmenaren baitan:

- GGKEek ordezkariak duten parte-hartzeari eutsi eta sendotzea
- GGKEei laguntzea, beren barne prozesu eta premietan
- GGKEak Gasteizen eta probintzian presente egon daitezela laguntza ematea
- GGKEen eta koordinakundearen informazioa kudeatzea
- Baterako sentsibilizazio jarduerak
- Erakundeekiko eta gizarte mugimenduekiko harremanak
- Hedabideetan presentzia edukitzea
- Web orria
- Bulego teknikoaren zerbitzuak eta mantentze lanak

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 32.000 eurokoa izan zen, eta Arabako Foru Aldundiarena ere, berdin, 32.000 eurokoa.

### **3.2.4. Bakeaz koadernoaren bilduman azterlanak argitaratzeko hitzarmenak**

Badira zenbait urte BAKEAZ bakeari buruzko dokumentazio eta ikerkuntzarako zentroak Garapenean Laguntzeko Zerbitzuekin lankidetzan diharduela; hain zuzen

ere, garapenerako lankidetzaren inguruko hainbat lan argitaratzen ditu, Bakeaz koadernoak izeneko bildumaren baitan.

Lankidetzaren interesgarritasuna eta jarraipena ikusirik, baita argitaratutako materialen kalitatea eta hartzaileen artean duten harrera ona ere, uste izan zen aukerarik egokiena lankidetzaren hitzarmen orokor bat gauzatzea zela. Horrela, bada, urte osorako hitzarmen bat izenpetu zen 2007an, argitalpen hauek egin, argitaratu eta banatzeko:

- Bakeaz koadernoak, 82. zk.: *“Costa de Marfil: entre la violencia y el desarrollo”*, Aleksi Ylonen, Mayra Moro Coco eta Juan Álvarez Cobelas.
- Bakeaz koadernoak, 83. zk.: *“Los Objetivos de Desarrollo del Milenio y la cooperación descentralizada”*, Carlos Gómez Gil.
- Bakeaz koadernoak, 84. zk.: *“El comercio justo como herramienta de consumo responsable”*, Laura Rodríguez Zugasti eta Ana Izquierdo Lejardi.

Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmen horren baitan, 15.450 €-koa izan zen.

### **3.2.5. AFANIS Saharako haurrak hartzen dituzten familien elkartearen, Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena: “Oporrak bakean” programa**

Duela zenbait urtetik hona, bai Gasteizko Udalak, bai Arabako Foru Aldundiak laguntza ematen dute “Oporrak bakean” programa bideratzen laguntzeko. Horren bitartez, Saharako haurrek –Tindufeko (Aljeria) iheslarietako kanpamentuetakoek– uda Gasteizen eta Arabako beste herri batzuetan, bertako familiekin pasatzeko aukera izaten dute.

Haurrak hartzen dituzten familien elkarteak (AFANIS) kudeatzen du programa hori 2006az geroztik. 44 haur hartu ziren 2007. urtean: 25 neska eta 19 mutil.

Zehazki, ekintza hauek gauzatu ziren hitzarmenaren baitan:

- Hedabideei proiektua ezagutzera eman.
- Haurrak jasoko zituzten familiak aukeratu.
- Haurrak hartuko zituzten familia berriekin elkarrizketatu eta aholkularitza eman.
- Bilbora hegazkinez iritsi, Tindoufetik.
- Autobusez Gasteizera eraman.
- Haurrak familietan banatu.
- Harrera familiek edozein behar edo arazo izanik ere, laguntza eman.
- Saharako begirale batek parte hartu zuen programan, sortzen ziren behar eta arazoei erantzuten laguntzeko.
- Mediku azterketa.
- Alkatearen harrera.
- Familiek nahi izanez gero, udan zehar haurrak elkarrekin biltzeko jarduerak antolatu.

- Programaren urteko festa, Euskadin.
- Bilboko aireportura itzuli.

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 22.500 eurokoa izan zen, eta Arabako Foru Aldundiarena, berriz, 12.000 eurokoa.

### **3.2.6. SETEM Hego Haizea eta Arabako Foru Aldundiarekiko hitzarmena, garapenean laguntzeko boluntarioak prestatzeko programa garatzeko. 2007-08 ikasturtea**

SETEM Hego Haizea GGKEak garapenean laguntzeko boluntarioak prestatzeko bideratzen duen programaren baitan ikastaro teoriko-praktikoak antolatzen dira, zeinetan batez ere gazteek parte hartzen baitute eta garatze bidean dauden herrialdeetako errealitatearekin eta horrek gure gizartearekin dituen erlazioekin zerikusia duten hainbat gairen inguruko prestakuntza jasotzen baitute. Gainera, GGKE horren lankidetzaren proiektuetakoren batean parte hartzeko aukera dute gazte horietako zenbaitek. Gasteizen modu jarraituan garatzen den era horretako programa bakarra da, eta ongi betetzen ditu bertan parte hartzen duten pertsonak prestatu, sentiberatu eta boluntario gisa lan egiteko aukera emateko helburua.

Horregatik, duela zenbait urtetik hona, bai Gasteizko Udalak, bai Arabako Foru Aldundiak laguntza ematen diote, ekarpen ekonomikoaren bitartez.

2007. urtean jarduera zehatz hauek finkatu ziren, hitzarmenaren baitan garatzeko:

- a) "Hegoaldeko herrien errealitatea" ikastaroa.
  - Munduaren egungo egoeraren alderdi historiko, politiko, ekonomiko eta sozialak.
  - Garapena, lankidetzaren eta elkartasuna.
  - Garapenerako hezkuntza.
  - Hegotik Iparrerako mugimendu sozialak.
  - Gaur-gaurko gaia.
- b) Elkartasunerako auzolandegiak:
  - Koordinatzaileen ikastaroa.
  - Auzolandegiak aurkezteko asteburua.
  - "Hurbil zaitez hegoaldera" monografikoa.
  - Herrialdez herrialdeko prestakuntza bilerak.
  - "Eta orain zer?" monografikoa.

- c) Elkartasunerako auzolandegi bati buruzko ikus-entzunezkoa.

Gasteizko Udalaren ekarpen ekonomikoa, hitzarmenaren baitan, 26.000 eurokoa izan zen, eta Arabako Foru Aldundiarena, berriz, 7.100 eurokoa.

### **3.2.7. Sentsibilizazio deialdi eta hitzarmenaren baitako diru-laguntzak**

Sentsibilizazio jardueretarako eta garapenerako hezkuntzarako diru-laguntzen azpiprogramak biltzen dira ondoren:



| LANKIDETZA-HITZARMENA                               | DIRU-KOPURUA (€) |
|---|------------------|
| Bidezko merkataritzako kafe makinak                 |                  |
| GGKEen koordinakundea - Arabako ordezkariak         | 32.000,00        |
| SETEMen prestakuntza programa                       | 26.000,00        |
| “Oporrak bakean” programa                           | 22.500,00        |
| Mugarik Gabe: Zinema eta lankidetzaren erakustaldia | 20.100,00        |
| Bakeaz koadernoak                                   | 15.450,00        |
| <b>GUZTIRA</b>                                      | <b>85.065,00</b> |

### **3.3. Informazioa, zabalkundea eta prestakuntza.**

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak diru-laguntza deialdi eta hitzarmenetatik kanpo gauzatzen dituen hainbat jardura biltzen dira informazio eta zabalkunde alorrean; batetik, lankidetzari buruzko informazioa eman edo argitaratutako materialak zabaltzeko asmoz udalak berak zuzenean antolatzen dituenak; bestetik, berriz, diru-laguntzarik eman gabe ere beste erakunde batzuek bultzatutako ekimen edo kanpainei laguntza puntuala emateko direnak.

Halaber, nolabait ere, sail honetan sar daitezke Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak GGKEei bitartekoak eskura jartzeko eta laguntzeko egindako kudeatze lanak:

- Urte osorako aurreikusitako jarduerari buruzko informazioa bildu eta GGKEei bidaltzea, urteko agenda antolatzeko.
- Hitzaldiak, ekitaldi publikoak, jardunaldiak eta abar egiteko aretoak eta bestelako materialak uztea.
- GGKEek antolatutako biltzar, jardunaldi eta besteren edukiak, egitura eta alderdi logistikoak zehazten laguntzea.

#### **3.3.1. Hacia una manualística universal de habitabilidad básica liburuaren aurkezpena**

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak antolatuta, “Hacia una manualística universal de habitabilidad básica” liburuaren aurkezpena egin zen urtarrilaren 18an, diputazio jauregian.

Konponbide teknikoan 223 fitxa biltzen ditu liburuak (eraikuntza-materialak, ura, saneamendua, energia eta abar), eta tresna oso baliagarria da hainbat alorretako proiektuetan laguntzen duten profesional eta GGKEentzat: oinarritzeko bizi-egokitasuna, giza kokaguneak, eraikuntza edo beste.

Egileetako bik parte hartu zuten ekitaldian: Julián Salas industria-ingeniariak eta Iñaki Oteiza arkitektoak.

### **3.3.2. Lankidetzaren irudietan argazki lehiaketa**

Otsailaren 12an eman zitzaizkien sariak bi urtean behin egiten den *Lankidetzaren irudietan* argazki lehiaketaren hirugarren edizioko irabazleei, erakusketa inauguratzeaz batera. Pilarreko gizarte etxeko erakusketa aretoan egon zen jendaurrean erakusketa hori, otsailaren 27ra arte.

Garatze bidean dauden herrialdeetako lankidetzaren inguruko argazkiak biltzen zituen erakusketak, guztira 42 argazki, 2004az geroztik Gasteizko Udalaren nahiz Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza jaso duten lankidetzaren proiektuen ingurukoak.

Hainbat bisitaldi gidatu egin ziren, eta Arabako hainbat herritara ere eraman zen erakusketa, urtean zehar.

### **3.3.3. Saharari buruzko mintegia**

La Guera *daira* eta Gasteiz hiria senidetu zirenetik hogeitun urte betetzen zirela ospatzeko 2007an egindako ekitaldien baitan, mintegi bat egin zen martxoaren 30ean eta 31n, Europa biltzar etxean, “*La solidaridad con el pueblo saharauí ante la evolución social de los campamentos de refugiados/as y la situación de los territorios ocupados*” izenburupean.

Gasteizko Udalak RASDaren Lagunen Elkartearen laguntzaz antolatutako mintegi hori Saharako herriarekiko elkartasunean zuzenean murgildurik dauden pertsonen zuzendua zegoen, eta helburu jakin batekin antolatu zen: errefuxiatu kanpamenduetan gertatzen ari diren bilakaerak eta okupatutako lurraldeetako errealitate sozio-politikoa aztertu eta bi alderdi horiek Saharako herriarekiko elkartasun mugimenduan dituzten inplikazioei buruzko gogoeta egitea.

Sophie Caratini, Jadiyah El Mohtar, Omar Bulsán eta Elkasini Mohamed Ali izan ziren hizlariak.

### **3.3.4. Generoa eta aniztasuna mintegia**

Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak antolatutako mintegi hori diseinatu eta antolatzen lagundu zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak. Maiatzaren 24an eta 25ean izan zen, Europa biltzar etxean.

Emakundek sustatutako NARO berdintasunerako foroaren eta Immigrazioaren Tokiko Planaren (2005-2007) barruan kokatua zegoen mintegia, eta “Norabide” udalaren etorkinentzako harrera zentroaren laguntza ere izan zuen.

Udalerriko emakume migratzaileekiko esku-hartzea hobetzea zuen helburu, genero analisia, giza eskubideak, immigrazioa eta kulturartekotasuna kontuan hartzen dituen esparru orokor batetik, baita haien integrazioa eta parte-hartze soziala sustatzea ere.

Emakume marokoar, errumaniar, kolonbiar eta afrikarren jatorrizko herrialdeetako egitura- eta pentsaera-gakoak eta alderdi soziokulturalak, ohiturazkoak, erlijiozkoak eta abar aztertu ziren.

### **3.3.5. Hainbat urtetarako proiektuei buruzko ikus-entzunezko bat egitea**

El Salvadorreko Ertamerikako José Simeón Cañas Unibertsitateko (UCA) Ikus-entzunezko Departamendua kontratatu du Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak herrialde horretan bideratzen ari diren hainbat urtetarako bi proiektuetako esperientzia jasoko duen dokumental bat egin dezan.

### **3.3.6. *Ez da emakumerik emagaldurako jaio denik* erakusketa**

Boliviako “Mujeres Creando” talde feministaren “Ez da emakumerik emagaldurako jaio denik” erakusketa egin zen, azaroaren 16tik urtarrilaren 6ra bitartean, Montehermoso kulturunean. Argazkiak, graffitiak, bideo bat, posterrak eta argitalpen bat biltzen ditu obrak, ikusleei egindako galdera gisa. Bolivian sortu zen erakusketa, prostituzioaren inguruko borroka estrategiaren baitan, galderak zuzendu ohi zaizkien horiei zuzendu beharrean gizarteari berari zuzentzea lortzeko helburuarekin sortu ere.

Erakusketaren alderdirik nabarmenena argazkiek osatzen dute. Bolivian prostitutei egindako lehenengoetako argazkiak dira, poliziaren artxiborako eginak, eta XIX. mende bukaerako Cordero Artxibokoan gordeta daude.

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak interesaturik zeuden pertsona eta erakundeei argazki erakusketa bat aurkezteko egindako gonbitearen ondorioz sortu zen erakusketa. Berdintasunerako Zerbitzuak eta Montehermoso kulturuneak ere parte hartu zuten azkenik finantzazioan.

Erakusketaren osagarri gisa, inaugurazio hitzaldi bat izan zen, María Galindo eta Sonia Sánchezek eskainia, eta erakusketaren izenburu bereko liburuaren aurkezpena. Zenbait bisitaldi gidatu ere egin ziren.

### **3.3.7. “EAEko GGKEetako lan egoera” azterlana**

GGKEei eragiten dieten hainbat egoerek sortu duten kezka dela eta, bereziki, lanpostuen mugikortasun maila altua zein langileen artean eman diren hainbat estres edo herstura egoera, Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko garapenean laguntzeko zerbitzuek GGKEetako lan baldintzei buruzko azterlana egiteko beharra ikusi zuten.

Hasiera batean hausnarketa taldea eratu zuten erakunde biek Gasteizko GGKEetan lan egiten duten edo lan egin duten lau pertsonarekin batera. Taldeak diagnosi azterlana eta jardunaldi batzuk burutzeko proposamena egin zuen, baita analisirako proposamenaren zirriborroa gauzatu ere. Ikuspegi anitza baliatu da analisi horretarako, lana bera, alderdi psikosoziala, giza baliabideen antolakuntza eta kudeaketa baita generoa ere kontuan hartzen duen ikuspegia, hain zuzen.

Proposamenaren interesa Arabatik kanpo ere heda zitekeela aintzat harturik, Euskadiko GGKEen koordinakundeari eta Eusko Jaurlaritzako Lankidetzaren Zuzendaritzari helarazi zieten Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak taldearen proposamena, autonomia erkidego osora zabaltzeko.

Bi lan-egitura eratu ziren:

- Batzorde politiko bat lau erakundeetako ordezkariak eta bi langilek osatua.
- Idazkaritza teknikoa, Gasteizko Udalak eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak osatua.

Eta, hainbat bileratan, 2007. urtean lau fasetan burutzeko proiektu bat diseinatu zen:

- 1. fasea: urtarrila-martxoa: aditu taldea, inkesta egitea  
Aditu taldea eratu zen alderdi hauetako bakoitzean:

- Lan alderdiak
- Antolakuntza eta giza baliabideen inguruko alderdiak
- Alderdi psikosozialak
- Genero ikuspegia

Azterlanerako metodologia definitu zuen talde horrek, hain zuzen, lau alderdiak jasoko zituen inkesta bat egitea eta eztabaida taldeak baliatzea. Azterlanaren unibertsoa ere zehaztu zuen, baita inkestaren eduki xehea aukeratu eta alderdi bakoitzaren inguruko azterlana egiteko konpromisoa hartu ere.

- 2. fasea: apirila-abuztua: enpresa kontratatu, inkesta egin eta eztabaida taldeak bideratzea.

Inkesta egingo duen enpresa kontratatzeako ardura Gasteizko Udalaren esku uztea erabaki zen, berak baitu Teknologia Kudeaketa eta Herritarrentzako Arreta Sailaren lkerketa Bulegoaren laguntza teknikoa. Dagokion lizitazio prozeduraren ondoren, EMAIKER Gabinete de Estudios Sociológicos SL enpresa kontratatzea erabaki zen, eta hark helarazi zuen inkesta zein hiru eztabaida talde eratu.

- 3. fasea: iraila-urria: adituek diagnosi azterlanak egitea.

1.- Enpresak (beste iturrikoak ere) egindako azterlanaren emaitzak sakontasunez analizatzea

2.- Beste sektoreekiko alderatzea

3.- Ondorioak

4.- Gomendioak eta hobetzeko proposamenak

- 4. fasea: azaroa: jardunaldiak egitea.

Azaroaren 29an eta 30ean egin ziren jardunaldiak, Europa biltzar etxean, "Gure lana hobetzen. Lan-baldintzak GGKEetan" izenburupean.

### **3.3.8. Udal Kazetan artikulak argitaratzea**

Garapenerako lankidetzaren alorreko jarduerekin zerikusia duten artikulua hauek argitaratu ziren Udal Kazetan 2007an:

| ARTIKULUAK  | KAZETAREN ZK. | OR.          |
|---|---------------|--------------|
| “Jóvenes latinoamericanos”. Hainbat zinegotzirekin bildu ziren, haur langile gisa izandako esperientzia kontatzeko, Save the Children erakundearen proiektuaren baitan.   | 70            | 13           |
| “Un festival para los sentidos”. Nazioen Azokari eta UNICEF eta Tierra de Hombres erakundeek parte hartu zuten elkartasun-guneari buruzko informazioa.  | 70            | Atzeko azala |
| “Camiones para Guinea y Barín”. Lorategiak garbitzeko zortzi kamioi ematea Asociación Africanista Manuel Iradier elkarteari, hondakinak biltzeko.   | 71            | 4            |
| “Inmigrante y... mujer”. “Generoa eta kultura-aniztasuna” mintegiari buruzko informazioa.   | 71            | 27           |
| “Camiones a África”. Zaborra biltzeko zortzi kamioi txiki bidaltzea.  | 72            | 15           |
| “Mujeres del Mundo”. “Generoa eta kultura-aniztasuna” mintegian aurkeztutako hitzaldien eta mahai inguruaren laburpena.   | 72            | 26-27        |
| “Banca Ética”. Fiare Banku Etikoaren bulego bat inauguratzea, Gasteizen. Nazioarteko elkartasun proiektuetan laguntzea du helburuetako bat.   | 73            | 4            |
| “Vacaciones en Paz”. Uda Arabako hainbat familian igarotzera Tindoufeko kanpamenduetatik etorritako saharai hurrei harrera egitea udaletxean.   | 73            | 13           |
| “Olarizu conmemora el Hermanamiento de La Güera con Vitoria-Gasteiz”. XX. urteurrena ospatzeko ekitaldiak, Olarizu egunean eta Foru plazan.   | 74            | 8            |
| “Terremoto de Perú”. Larrialdietarako Arabako Funtzaren kontura finantzatzeko proiektuei buruzko informazioa.   | 74            | 9            |
| “Semana contra la pobreza”. Pobreziaren kontrako nazioarteko eguna zela eta (urriaren 17a) Euskadiko GGKEen Koordinakundearen Arabako ordezkariak antolatutako ekitaldiak.  | 75            | 4            |
| “Aniversario con La Güera”. Irailaren 28an eta 29an Foru plazan eginako ekitaldiak.   | 75            | 13           |
| “Niños y mujeres reivindican sus derechos”. Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren XVIII. urteurrena ospatzeko festa, Serso, Tierra de Hombres eta Arduradun Eskola partzuergoaren hainbat urtetarako proiektuaren partehartzearekin. | 76            | 20           |
| “Agitación callejera”. Ikusleei galde egiten dien erakusketa bat: “ <i>Ez da emakumerik emagaldurako jaio denik</i> ”.  | 76            | 22           |
| “La morada de La Habana”. Habana Zaharreko (Kuba) eraikin baten eraberrikuntzari buruzko informazioa (hirugarren adinekoentzako zainpeko apartamentu gisa baliatuko da).  | 77            | 8            |

### 3.3.9. Lankidetzari buruzko web-orria

2007. urtean eguneratu eta zabaldu egin zen lankidetzari buruzko udal web-orria ([www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion](http://www.vitoria-gasteiz.org/cooperacion)); atal berriak sartu ziren, eta edukiak berritu, bai direktorioa, bai jardueren agenda, estekak eta dokumentu interesgarriak, diru-laguntza deialdiak... Garapenerako Kontseiluaren atalean organo horri dagokion dokumentazio guztia eskaintzen da. Sentsibilizazio baliabideei buruzko datu basea Hegoak eguneratu du, eta aurki jarriko da udalaren web orrian.

### 3.3.10. Materialen zabalkundea

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuaren 2006ko oroit-idazkia argitaratu eta banatu zen 2007an.

Orobat finantzatu zen, ohi denez, udal liburutegietan *Federación de Comités de Solidaridad con el África Negra* erakundearen hiruhileko UMOYA aldizkaria jasotzeko harpidetza.

### 3.3.11. Jostailuak biltzeko kanpaina.

Azken urteetan bezalaxe, iaz ere lagundu zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak Gurutze Gorriak eta Gazteria Zerbitzuak bideratu ohi duten kanpaina horretan. Perura bidali ziren kanpaina bildutako jostailuak.

### 3.3.12. Najapara (El Salvador) liburuak bidaltzea

STEE-EILAS sindikatuaren kanpaina zela medio ikastetxeetan bildutako liburuak Nejapako (El Salvador) udal liburutegira bidali ziren.

### 3.3.13. Informazio eta zabalkunde atalaren aurrekontua

| INFORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK                            | DIRU-KOPURUA (€) |
|--|------------------|
| GGKEetako lan-baldintzei buruzko azterketa eta diagnosis           | 36.413,49        |
| Hainbat urtetarako 2 proiekturi buruzko dokumentala egitea         | 5.530,00         |
| “Lankidetzaren irudietan” argazki lehiaketaren erakusketa          | 4.933,43         |
| Saharari buruzko mintegia (2007ko martxoa)                         | 4.773,17         |
| 2006ko oroit-idazkia   | 3.953,28         |
| “ <i>Ez da emakumerik emagaldurako jaiotzen denik</i> ” erakusketa | 3.000,00         |
| Perura jostailuak bidaltzea (2006ko kanpaina)                      | 3.077,67         |
| Sentsibilizazio baliabideen basea eguneratzea                      | 2.900,00         |
| Guatemalari buruzko mintegia (2008ko urtarrila)                    | 1.778,33         |
| Najapara liburuak bidaltzea  | 480,15           |
| Beste (sentsibilizazioa)   | 387,00           |
| Bisitaldi eta trukeak  | 238,25           |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>67.464,77</b> |

## 4. Jarraipena eta ebaluazioa

Finantzatzen lagundutako proiektu bat bertatik bertara ikusten izan zen Garapenean Laguntzeko Zerbitzua 2007. urtean, Bolivian.

Ondoren adierazten dira egin edo kontratatutako jarraipen, ebaluazio eta alde zuzeneko identifikazio ekintzak.

### 4.1. Proiektuen jarraipenerako bisitaldia

Gasteizko Udalak Bolivian lagundutako proiektuen jarraipenerako bisitaldi bat egitea beharrezko zela iritzi zion Garapenean Laguntzeko Zerbitzua, funtsean arrazoi hauengatik:

- tartean hainbat urtetarako hiru proiektu zeudelako (bata gauzatzen eta bestea formulatze aldian), eta
- herrialde hori aldakuntza politiko, ekonomiko eta instituzionalean murgildua zegoelako, eta horrek proiektu horietan eragina izan zezakeelako.

Adierazitako hiru proiektu horiek interesez berezia dute udalarentzat; izan ere:

- tokian tokiko garapenaren eta udal jardueraren alorrekoak dira, eta udal eskumenen esparrukoak;
- tokian tokiko udalen esku-hartze handia dute;
- eta Gasteizko Udalaren diru-ekarpen handiak jaso dituzte, edo jasotzekoak dira, 353.000 € eta 525.000 € bitartekoak.

|            |   |
|------------|---|
| DATAK      | 2007KO IRAILAREN 14TIK 27RA                     |
| Inguruneak | Cochabambako departamendua eta La Paz (Bolivia) |

| PROIEKTUA   | KODEA        | HERRIA     | GGKE                      |
|---|--------------|------------|---------------------------|
| Tokiko garapen integral, parte-hartezko, iraunkor eta genero berdintasunezkoaren kudeaketa sendotzea Tiquipaya udalerrian | 06-IP-02-BOL | Tiquipaya  | Paz y Solidaridad Euskadi |
| Germán Busch kantoiaaren garapen lokal iraunkorrerako lurralde antolakuntza integral, demokratiko eta partehartzailea     | P-02-BOL     | Shinahota  | Paz y Solidaridad Euskadi |
| Edateko uraren sistema –adukzio sarea–, Villa El Porvenir herrian (Cochabamba)  |              | Cochabamba | María José Pascual        |
| Edateko uraren sistema integrala, denentzako eta kalitatezkoa, Sacabako udalerrian  | 06-IP-03-BOL | Sacaba     | PROCLADE Euskadi          |
| Edateko uraren sistema, Chanchajlliko (Chuquisaca) nekazari herrian   | 06-A-01-BOL  | La Paz     | ADRA                      |
| Ureztapen sistema, Irpuma (Bolivia) nekazari herrian  | 07-A-02-BOL  |            |                           |
| Boliviako errealitatearen funtsezko hainbat alderdiri dagokionez aditu diren zenbait pertsona                             |              | La Paz     |                           |

## **4.2. *Proiektuei buruzko txostenen jarraipena***

Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egiten du deialdien nahiz hitzarmenen haritik bideratzen diren lankidetzak proiektuei buruzko txostenen jarraipena, baita sentiberatzearen eta giza-laguntzaren nahiz larrialdien alorrekoen buruzko txostenena ere.

Sei hilean behin aurkeztu behar izaten dituzte txostenak GGKEek (zenbaitetan urtekoak), guztientzat berberak diren arauak jarraiki, eta jarraipen-sistema horrek proiektuak zenbateraino bete diren, zer-nolako eragina izan duten eta diru-laguntzak zertarako baliatu diren jakiteko aukera eskaintzen du.

Proiektuak kudeatzeko datu-biltegian sartzen dira txostenetan eskainitako datuak. Hartara, egindako jarraipenaren eta proiektuen justifikazioen ikuspegi zabala izan daiteke uneoro.

Jarraipen sistema arina dela irudi balezake ere, dezenteko lan-karga gertatzen da, proiektuen kopurua kontuan izanik. Hori dela eta, jarraipena hobetzeko orduan erabakigarria izan da zerbitzuak 2006. urtean hirugarren teknikari bat hartu izana, bai denborari, bai kalitateari dagokionez.

## **4.3. *Saharako programaren (2002-2006) ebaluazioaren emaitzak***

Saharako programa, hau da, 2002. urtetik 2006.era bitartean Arabako RASDaren Lagunen Elkartearikiko hitzarmenaren baitan bideratutako proiektuak bertatik bertara ebaluatzeko zeregina ICG aholkularitza enpresari esleitu zitzaion, 2006. urtean.

2007ko lehen hiruhilekoan egin zen ebaluazio hori. Proiektuen balioespina ona izan da. Bereziki azpimarratu zen irakaskuntzarako eskuliburu elebidunak egitearen egokitasuna, baita Erizaintza Eskolari laguntzeko proiektuak osasun sistema osoan izandako eragina ere; izan ere, prestakuntza eskola horretan jaso duten erizainek eusten diote gaur egun neurri handi batean.

## **4.4. *Paitarekiko (Peru) hitzarmenaren jarraipena kontrata-tzea***

2006. urtearen bukaera aldera hitzarmen bat sinatu zuen Gasteizko Udalak Paitako (Peru) probintzi udalerriarekin, ikastetxe batean ikasgelak eraikitzeko proiektua gauzatzeko.

Proiektu horren jarraipena bermatze aldera, Pariñas elkartearen –Arabako ADIPE elkartearen Peruko lankidea– laguntza izan zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, hitzarmen hori bertatik bertara ikuskatzeko.



#### 4.5. Zenbait urtetarako bi proiektu ebaluatzeko kontratazioa

2000. urteko deialdiko zenbait urtetarako bi proiekturen eragina ebaluatzeko lanak esleitzeko kontratazio-prozesua abian jarri zuen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak 2007. urtearen bukaera aldera –SETEM Hego Haizearen Curarrehueko (Txile) proiektua eta Proclade Euskadik Retalhuleun (Guatemala) duena–. Nuria Campsi (Avalua) esleitu zitzaizkion biak. 2008ko lehen hiruhilekoan egingo dira ebaluazioak.

| PROIEKTUA   | HERRIALDEA | UDALERRIA,<br>DEPARTAMENDUA               | GASTEIZKO<br>GGKE<br>BERTAKO GKE | DIRU-<br>LAGUNTZA,<br>GUZTIRA |
|---|------------|---|----------------------------------|-------------------------------|
| Curarrehueko herriaren garapen iraunkorra   | Txile      | Curarrehue,<br>Araucaníako 9.<br>eskualea | Curarrehueko<br>parrokia         | 428.222,60 €<br>(4 urteak)    |
| Garapen iraunkorra,<br>bake hitzarmenen haritik<br>nekazariei esleitutako<br>lurretan | Guatemala  | Champerico,<br>Retalhuleu                 | PROCLADE<br>Euskadi/<br>CEIDEC   | 460.475,60 €<br>(4 urteak)    |

#### 4.6. Jarraipena eta ebaluazioa egiteko baliatutako aurrekontua

| EBALUAZIOA   | KONTRATATUTAKO<br>ERAKUNDEA | DIRU-KOPURUA<br>(€) |
|--|-----------------------------|---------------------|
| Zenbait urtetarako P-01-CHI (SETEM)<br>proiektuaren ebaluazioa | Nuria Camps                 | 11.915,52           |
| Zenbait urtetarako P-04-GUA proiektuaren<br>ebaluazioa         | Nuria Camps                 | 11.903,11           |
| Paitarekiko hitzarmenaren jarraipena                           | Pariñas elkarte (Peru)      | 7.718,39            |
| Jarraipen-bisitaldia (Bolivia)                                 |                             | 2.108,94            |

## Truke eta bisitaldiak

Azpmarratzekoak dira truke eta bisitaldiak, lankidetzaren, elkar ezagutzearen eta sentsibilizazioaren helburuak beren baitan biltzen dituzten aldetik. Garapenean Laguntzeko Zerbitzua bisitatu duten beste herrialde batzuetako pertsonen berri ematen dugu, bada:

### 4.7. Bisitaldiak

Ohi denez, GGKEen proiektuetan tokian-tokian diharduten erakundeen ordezkarien bisitak izan zituen Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak, baita lankidetzaren nahiz giza eskubideen alorreko hainbat programarekin zerikusia duten hainbat herrialdeetako udal ordezkari edo pertsona ere.

| Data       | Izena                  | Kargua   | Erakundea                             | Herrialdea                       |
|------------|------------------------|--|---------------------------------------|----------------------------------|
| 01/01/2007 | Iván Calvache          | Alkate ohia  | Taminangoko alkatetza (Nariño)        | Kolonia                          |
| 06/02/2007 | Claudia Müller-Hoff    | Kolonbiako proiektuaren koordinatzailea  | PBI / Brigadas Internacionales de Paz | Belgika                          |
| 13/02/2007 | Destin Maliyamungu     | Haur soldadu izana   |                                       | Kongoko Errepublika Demokratikoa |
| 13/02/2007 | Nicole Nuyts           | Uviran haur soldaduak desmobilizatu eta gizarteratzeko proiektuaren zuzendaria |                                       | Kongoko Errepublika Demokratikoa |
| 20/02/2007 | Ana Daysi Cruz         | Alkatea  | Ilopango udalerria                    | El Salvador                      |
| 20/02/2007 | Walter Ortiz           | Alkatea  | San Lorenzo udalerria                 | El Salvador                      |
| 20/02/2007 | Mario González         | Alkatea  | San Martin udalerria                  | El Salvador                      |
| 20/02/2007 | Tomás Minero           | Alkatea  | Ciudad Delgado udalerria              | El Salvador                      |
| 20/02/2007 | Luz Estrella Rodríguez | Alkatea  | Apopa udalerria                       | El Salvador                      |
| 20/02/2007 | Salomón Alfaro Estrada | Udal Kudeaketa eta Lankidetzatzailea   | FMLN                                  | El Salvador                      |
| 09/03/2007 | Mariam Lamizana        | Gizarte Ekintzarako ministro ohia. Lehendakaria                                | "Emakumeen ahotsa" GKE                | Burkina Faso                     |
| 09/03/2007 | Najma Ahmed Abdi       | Lehendakaria   | Youth Leadership Forum                | Somalia                          |

| Data       | Izena                      | Kargua  | Erakundea   | Herrialdea  |
|------------|----------------------------|---|---|-------------|
| 09/03/2007 | Berhane Ras Work           | Zuzendaria  | Genevako Comité Inter Africano (IAC)  | Etiopia     |
| 09/03/2007 | Phyllis Nguma-Kimba        | Zuzendaria  | Osasun Publikoaren Koordinatzaile Nazionaleko genero departamendua  | Liberia     |
| 09/03/2007 | Aichata Daikite Quatarra   |   | APDF (Maliko aitzinamendurako eta emakumeen eskubideen defentsarako elkarte)                              | Mali        |
| 09/03/2007 | Youssef Bachabi            | Idazkari nagusiaren laguntzailea  | Emakume eta nesken osasunari eragiten dieten tradiziozko praktikei buruzko Nigeriako batzordea (CONIPRAT) | Niger       |
| 09/03/2007 | Oyefunso Omotope Oregua    |   | <i>Comité Inter Africano (IAC)</i>  | Nigeria     |
| 09/03/2007 | Kamaladin Akanabi Akitunde |   | <i>Comité Inter Africano (IAC)</i>  | Nigeria     |
| 09/03/2007 | Abebech Alemneh Belay      | Programme Officer   | <i>Comité Inter Africano (IAC)</i>  | Etiopia     |
| 09/03/2007 | Mbuji Kabunda Badi         | Nazioarteko harremanetan aditua, Haurralde fundazioaren laguntzailea  |   |             |
| 14/03/2007 | Alberto Muenala            | CLACPIren ( <i>Coordinadora Latinoameamericana de Cine y Comunicación de los Pueblos Indígenas</i> ) koordinatzaile nagusia | CONAIE  | Ekvador     |
| 14/03/2007 | Roger Rumrill              | CHIRAPAC jaialdiaren koordinatzailea  |   | Peru        |
| 14/03/2007 | Alexandra Halkin           | Zabalkundea   | <i>Promedios Comunicación Comunitaria Chiapas</i>   | Mexiko      |
| 14/03/2007 | Iván Sanjinés              | Gaikuntza   | CEFREC  | Bolivia     |
| 14/03/2007 | Clara Morales              | Ekoizpena   | <i>Ojo de Agua Comunicación</i>   | Mexiko      |
| 19/03/2007 | Enoé Reyes                 | Koordinazio taldea  | <i>"Construyendo más equitativos y democráticos"</i> proiektua  | El Salvador |
| 19/03/2007 | Daniela Fonkatz            | Proiektuaren koordinatzailea  | <i>"Construyendo más equitativos y"</i>   | El Salvador |

| Data       | Izena                           | Kargua  | Erakundea  | Herrialdea            |
|------------|---------------------------------|---|--|-----------------------|
|            |                                 |   | democráticos" proiektua  |                       |
| 12/04/2007 | Abdoul Gadiiry Diallo           | Lehendakaria  | Afrika mendebaldeko giza eskubideen defendatzaileen sarea                | Ginea                 |
| 12/04/2007 | Diokgbéne Bomboma               | Proiektuen koordinatzailea  | ADANE  |                       |
| 19/04/2007 | Juan Aladino Valdiviezo Alegria | NATs-eko kidea. Hainbat kargu izan ditu. Gaur egun Noruegan bizi da.  | <i>Movimiento de los Niños, Niñas y Adolescentes Trabajadores (NATs)</i> | Peru                  |
| 19/04/2007 | Lizeth Viscaya Gómez            | NATs-eko kidea.   | <i>Movimiento de los Niños, Niñas y Adolescentes Trabajadores (NATs)</i> | Nikaragua             |
| 19/04/2007 | Maribel Choque Chura            | NATs-eko kidea. <i>Unión de niños, niñas y adolescentes trabajadores de Bolivia (UNATSBO)</i> elkarteko nazioarteko nahiz nazio barruko harremanetarako idazkaria | <i>Movimiento de los Niños, Niñas y Adolescentes Trabajadores (NATs)</i> | Bolivia               |
| 07/05/2007 | Virginia Vargas                 | Zuzendaritza kontseiluko kidea  | <i>Flora Tristán - Centro de la Mujer Peruana</i>                        | Peru                  |
| 07/05/2007 | Blanca Fernández Montenegro     | Zuzendari betearazlea   | <i>Flora Tristán - Centro de la Mujer Peruana</i>                        | Peru                  |
| 23/05/2007 | Soumaya Naâmane-Guessous        | Soziologoa  | Mohamed V.a unibertsitatea (Rabat)                                       | Maroko                |
| 30/05/2007 | René Canjura                    | Alkatea   | Nejapako alkatetza   | El Salvador           |
| 11/09/2007 | José Darío                      | Ordezkaría  | <i>Hijos e hijas por la memoria y contra la impunidad</i>                | Kolonbia              |
| 27/09/2007 | Marisol McRea                   | Alkatea   | San Carlosko alkatetza   | Nikaragua             |
| 27/09/2007 | Jairo Fernández                 | Zinegotzia  | San Carlosko alkatetza   | Nikaragua             |
| 27/09/2007 | Danilo                          | PME proiektuaren zuzendaria   | San Carlosko alkatetza   | Nikaragua             |
| 09/10/2007 | Hmad Hamad                      | Giza eskubideen aldeko ekintzailea  |  | Mendebaldeko Sahara   |
| 10/10/2007 | Inoelia Remy                    | Zuzendaria  | APRODEMA. <i>Asociación Pro-Desarrollo de la Mujer y Medio Ambiente</i>  | Dominikar Errepublika |
| 15/10/2007 | Óscar Okada                     | Zuzendaria  | Educa institutua   | Peru                  |
| 17/10/2007 | Samuel Ventura                  | Planifikazioa eta kudeaketa   | <i>Asociación de Lisiados de Guerra en El Salvador</i>                   | El Salvador           |
| 18/10/2007 | Flavia Mba Obono                | Kabineteko zuzendari nagusia  | Gizarte Gaietarako eta Emakumearen Sustapenerako Ministerioa             | Ekuatore Ginea        |
| 19/10/2007 | René Canjura                    | Alkatea   | Nejapako alkatetza   | El Salvador           |
| 19/10/2007 | Narciso Ramírez                 | Alkatea   | San Francisco Menéndez herriko alkatetza                                 | El Salvador           |
| 25/10/2007 | Carlos Arturo Martínez          | Zuzendari nagusia   | ANAWIN   | Bolivia               |

| <b>Data</b> | <b>Izena</b>     | <b>Kargua</b>             | <b>Erakundea</b>  | <b>Herrialdea</b> |
|-------------|------------------|---------------------------|---|-------------------|
| 12/11/2007  | María Galindo    | Kidea                     | <i>Mujeres Creando</i>                                      | Bolivia           |
| 23/11/2007  | Amina Sminine    | Arlo sozialeko arduraduna | <i>Terre des Hommes Maroc</i>                               | Maroko            |
| 23/11/2007  | Héctor Mondragón |                           | <i>Convergencia Campesina, Negra e Indígena de Colombia</i> | Kolonbia          |
| 23/11/2007  | Juan Houghton    |                           | <i>Centro de Cooperación al Indígena CECOIN de Colombia</i> | Kolonbia          |

## 5. Lankidetzarako Kontseilua

Garapenean Laguntzeko Sektore Kontseiluak bideratutako jarduerak jasotzen ditugu atal honetan. Urtean zehar eztabaidatu eta erabaki ziren gai nagusiak hauexek izan ziren:

- Garapenerako lankidetzaz arduratuko den PSE-EEren gobernu talde berriko zinegotzi ordezkaria aurkeztea, baita garapenerako lankidetzaren alorrean legegintzaldi berriari jarraituko diren ildo nagusiak ere.
- Udal lankidetzaren bilakaera aztertuko duen lantaldea sortzea, 2008. urtean lankidetzaren horrek hogeitun urte beteko dituela eta.

### Kontseiluaren jardunari buruzko datuak:

| BILERAREN DATA | BERTARATUEN KOPURUA | GAI KOPURUA |
|----------------|---------------------|-------------|
| otsailaren 14a | 33                  | 5           |
| maiatzaren 3a  | 29                  | 5           |
| irailaren 19a  | 29                  | 4           |
| azaroaren 21a  | 30                  | 5           |